

# Hainbat ohar euskararen izen-flexioari buruz<sup>1</sup>

Algunas notas sobre la flexión nominal en la lengua vasca

Quelques notes sur la flexion nominale dans la langue basque

Some observations on noun inflection in Basque

ODRIOZOLA, Juan Carlos  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ETXEBARRIA, Edurne  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2017-09-29  
Noiz onartua: 2018-05-12

---

<sup>1</sup> Eskerrik asko Gorozikako herritarrei, batez ere bere etxean gogo onez hartu gaituzten hauei: Ana Aldana Barrena, Gregoria Esturo Orue, Maitene Etxeandia Etxeandia, Txomin Etxeandia Legina, Pilar Etxeandia Legina, Dorotea Etxeandia Legina, Anastasio Etxebarria Etxeandia, Rosi Etxeandia Etxebarria, Javier Etxebarria Idoeta, Rufino Etxebarria Petralanda, Jon Euba Olaeta, Kruzita Euba Olaeta, Ibon Gojenola Martitegi, Leire Gojenola Martitegi, Elker Gonzalez Larruzea, Marije Ipiña Salzedo, Teresa Irazabal Elorza, Jesusa Irazabal Elorza, Maria Irazabal Elorza, Maria Irazabal Izundegi, Amaia Isasi Amuriza, Gregorio Larruzea Furundarena, Marisol Larruzea Isasi, Alaitz Legarra Ipiña, Alberto Legarra Lasuen, Elisabet Legina Goikoetxea, Sabin Legina Goikoetxea, Itsaso Mallea Etxeandia, Jose Mallea Larrea, Karmele Martitegi Esturo, Felipe Martitegi Iturriotz, Eusebio Martitegi Zubiaga, Juan Oarbeaskoa Bikandi, Alazne Oarbeaskoa Etxeandia, Jesus Urkiza Etxebarria, Mariasun Urkiza Irazabal. Lan honen egileetako baten hizkuntz konpetentziaz gain, hiztun hauek guztiak dira Gorozikako euskara jatorraz zehaztapenak eman dizkigutenak.

Euskal gramatiketako «mugagabea», «mugatu singularra» eta «mugatu plurala», morfologia hutsezko paradigmazat joko dira, [+zehaztua] eta [+plurala] semantika-kontzeptuetatik ondo bereiziz. [+Hurbila] ere findu egingo dugu ildo berean. Zorrotz saiatuko gara kategoria funtzionaltzat jo litezkeen determinatzailea, zenbakia eta kasua segmentu foniko multzo jakin batzuei egozten. Bazter hizkerekin zehaztaper osagarriak baina argigarria(go)ak eskainiko dizkigute, datu diakroniko eta diasistematikoetan zehar.

**Gako-hitzak:** Izenen flexio-morfologia, diakronia, euskalkiak.

En este trabajo se mostrarán como paradigmas puramente morfológicos los que en las gramáticas vascas se han dado en llamar «indeterminado», «determinado singular» y «determinado plural». Para ello se distinguirán de esos conceptos morfológicos, los rasgos semánticos de [+específico] y [+plural]. Igualmente se afinará en torno al rasgo de [+cercano] que tiene una manifestación morfológica en el nombre vasco. Se intentará también adjudicar determinados segmentos morfofonéticos de esta complicada morfología a los determinantes, morfemas de número y de caso, que son categorías funcionales actualmente reconocidas a lo largo de todos los idiomas. En esa línea, los dialectos más apartados de la evolución general del idioma nos ofrecerán a través de sus datos una nueva visión diacrónica y diasistemática.

**Palabras clave:** Flexión morfológica nominal, diacronía, dialectos.

Dans cet article, nous montrerons comme des paradigmes purement morphologiques ceux que les grammaires basques ont appelé «indéterminé», «déterminé singulier» et «déterminé pluriel». À cette fin, les caractéristiques sémantiques de [+ spécifique] et [+ plural] seront distinguées de ces autres concepts morphologiques. Il sera également affiné autour du concept de [+proche] qui a une manifestation morphologique au nom basque. Une tentative sera également faite pour assigner certains segments morfofonétiques de cette morphologie compliquée aux déterminants, aux morphèmes de nombres et de cas, qui sont des catégories fonctionnelles actuellement reconnues dans toutes les langues. Dans cette ligne, les dialectes les plus éloignés de l'évolution générale de la langue nous offriront, à travers leurs données, une nouvelle vision diachronique et diasystématique.

**Mots-clés:** morphologie flexionnelle des noms, diachronie, dialectes basques.

The “mugagabea” or indefinite case, “mugatu singularra”, definite singular and “mugatu plurala”, definite plural, of Basque grammars are treated as purely morphological paradigms and kept clearly distinct from the semantic concepts of [+zehaztua], [+definite], and [+plurala], [+plural]. We will also refine our understanding of [+Hurbila], [+Proximal], in the same light. We shall be rigorous in assigning determiners, number and case, all of which may be considered functional categories, to specific groups of phonic segments. Marginal forms of speech offer us complementary but enlightening details through diachronic and diasystemic data.

**Keywords:** noun inflection morphology, diachronic, Basque dialects.

Ezaguna da egungo hizkuntzalariak saiatzen ari direla giza hizkuntza oro-ren ezaugarriak formalizazio abstraktu bakar baten pean bildu ahal izateko. Horrela, ahaleginetan dabiltza giza lengoia espeziearen burmuinaren ezaugarriekin uztartzeko, eta sakonean, hizkuntzalaritzari ere biologiaren ikuspegia emateko.

Eguno lanek, bada, hainbat formalizazio erabiltzen dituzte hizkuntza guztien funtza deskribatzeko eta hizkuntzaz hizkuntza aurki litezkeen datu enpiriko berriak auresan ahal izateko. Horretarako, baina, sendo erabaki dute hizkuntza guztietarako eredu berbera erabiltzea.

Euskararen gramatika-tradizioa hainbat kontutan ez da oso hurbil ibili beste hizkuntzekiko parekatze horretatik. Hala ere, flexio morfologiari begira jartzen garelara, esan dezakegu euskal aditz jokatua ederki parekatua dagoela munduko beste hizkuntzekin: ederki antzeman eta deskribatuta daude izenetan, hau da, gehienetan argumentu funtzioa betetzen duten gramatika-kategoria horretako kideetan azaltzen diren funtzio-kategoriek edota kategoria funtzionalek, hau da, kasu markek eta zenbaki-markek aditzean bertan duten isla edota komunztadura-klitikoak. Horrekin esan nahi dugu agerian gelditu dela, dauden funtzio-kategoriak daudela ere, euskal aditzak bat egiten duela munduko hizkuntzek aditzetan erakusten dituzten funtzio-kategoriekin.

Izen-morfologiaz ari garelara, ordea, euskararen datuz datuko deskripzio xehea ez da beti ondo moldatu egun eskaintzen diren eta zabalki onartuak diren formalizazio moduekin. Bestela esanda, ez zaizkio behar bezain argi azaldu munduan zeharreko hizkuntzalaritza-komunitateari ustez banan-banan bereizi beharko lirakeen euskal funtzio-kategoriak. Lan honek, aurre-rapauso bat eman nahi du euskal izenaren «homologazio» kontu honetan, edo bestela esanda, euskal izenaren funtzio-kategoriak ondo zedarritzatzeko ahalegin bat egin nahi du, munduko beste hizkuntzekin bat eginez.

Labur esanda, euskarak badu kasu-sistema oso ageria, zenbaki-marka nahiko ageria eta, zer esanik ez, determinatzaile atxikiak eta atxikigabeak. Hizkuntza honen ezaugarri parametrikoez, ordea, nekez uzten dute flexioari dagozkion funtzio-kategoria funtzional horiek elkarrengandik eroso bereizten, eta ondorioz nekez zatika daitezke egun gramatika unibertsala de-

ritzon horren itzalpean zabalki onartuak dauden kategorietan. Euskara hizkuntza erabiltzen dugunok barneratua daukagu, jakina, morfofonetika korapilatsu hori, baina deskripzioek, bere horretan, ezer gutxi balio dute, maila abstraktuan euskal hiztuna ez den aditu bati parametroak azaltzeko unean.

Gauzak horrela, ulergarria da «deklinabide singularra», «deklinabide plurala» eta «deklinabide mugagabea» direlako deizioak eta kontzeptu ez oso argiak erabili izana, hau da, ulergarria da argiro bereizi ez izana determinatzailearen agerpena edo determinatzailearik eza, zenbaki-markaren presentzia edo zenbaki-markarik eza, eta ageriko kasu markak eta postposizio atxikiak beraiek. Bestela esanda, hiru deizio hauek, *de factoko* paradigma edota errealitate morfologiko bati egiten diote erreferentzia lehenengo hurbilketa batean. Egia da deizioak beraiek estuki lotuta daudela sintaxi-testuinguru banari, hots, hiru horietako bakoitza estuki lotuta dago «singular», «plural» edo «mugagabe»tzat hartzen dugun perpaus-testuinguru batekin. Hala ere, deitura hauek bi oztopo nagusi jartzen dizkiote edozein ikerketa-metodologiari: batetik paradigmetakoa forma batzuek ez dute beti hartzen beraiengandik espero daitekeen semantika-irakurketa. Izatez, morfologiari eta sintaxiari begira «mugatua» deitu izan denak ez du beti nolabaiteko semantika mailan irakurketa «mugatua».

Horrela, bada, argi bereizi beharko ditugu elkarrengandik morfologia mailan «mugatua» deitu izan dena eta semantika mailan irakurketa mugatua edo zehaztua hartzen duena: morfologia mailako paradigma mugatuaz mintzatuko gara lehenengoan, eta tartean irakurketa zehaztua dugula esango dugu bigarreanean, betiere bata bestearengandik argiro bananduz.

Beste oztopo bat ikusten dugu, «mugagabea» bereizi delako batetik, eta «mugatu singularra» eta «mugatu plurala» bestetik. Ikuspegi honeetatik ere, morfologia mailako singular/plural markez mintzatuko gara batetik, eta irakurketa singularra/irakurketa pluralaz mintzatuko gara bestetik.

Aurreko guztiarekin batera, ez dute beti aukera ematen determinatzaileek, zenbaki-markek, kasuek eta postposizioek elkarrengandik ondo bereiziak izateko, eta behar bezalako formalizazio argia gauzatzeko.

Hala ere, tankera honetako morfologia-deskripzio hirukoitzek bere horretan iraun dute hizkuntza honen gramatika-tradizio luzean, eta «egon badauden» hiru morfologia-paradigma horiei etiketa bana jarri zaie, morfologian eta sintaxi-testuinguruetan oinarrituta. Garbi dago, bada, honelako hiru paradigma deskribatu direla morfosintaxian oinarrituta: [+mugatua, +singularra], [-mugatua] eta [+mugatua, +plurala]. Lan honetan, [+zehaztua] eta [+plurala] tasun semantikoak erabiliko ditugu hiru errealitate morfosintaktiko horiek areago zehazteko, eta agian espero ez bezalako tasun-konbinazioak agerian uzteko. Era berean, kontuan izango dugu gramatika-tradizioak zeharka baizik aipatzen ez duen [+hurbila] tasuna.

Beste ikuspegi batetik, berriki plazaratu diren lanetan, argiro adierazi da ezinbestekoa gertatuko dela aurrerantzean euskal morfologiak jasan dituen bilakaera bideak kontuan izatea, egungo euskal sistemaren datu sinkronikoak ondo antzemango badira. Ildo horretan aurrera eginez, lan honek aurrerapauso txiki bat egingo du euskararen historia ezagutzeko ahaleginetan, baina gainera egungo euskararen hainbat aldaera hartuko ditu aztergai, puzzle honetako pieza guztiak bere tokian doi-doi kokatzeko. Bereziki, Gorozika herrian egiten den bizkaierazko hizkeraren zehaztapenei erreparatuko diegu, apur bat hobeto ulertu nahi baitugu batuak oinarri dituen euskalkietan ondo zedarriztatzen ez dena eta oro har euskal hizkera guztiak.

Lana beraz, honelako ardatzetan egituratuko da:

- 1) Hasiera-hasierakoa izango da euskarak deklinabidea baduelako ideia-  
ren aurkako datu edo argudio berriak aurkitzea, hain zuzen ere deklinabidea duten hizkuntzetako flexiodun formetan nekez bereizten baitira zati lexikoak eta flexio zatiak, eta nekezago flexio zatiak berriak elkarrengandik.
- 2) Ondo finkatu beharko dugu benetan semantikako kontzeptu banari ote dagozkion sintaxi-testuinguru jakin horiei lotuta ondo zedarriztatzen diren «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «muga-gabea» morfologia-paradigmak. Horretaz gain, lan honek gogora ekarriko du, izatez, kontuan hartu beharko lirakekeela «mugatu singular hurbila» eta «mugatu plural hurbila» morfologia eta semantika-kontzeptuak ere.

- 3) Paradigma hirukoitz horretan zorrotz begiratu beharko dugu funtsezkotzat hartu izan diren [+plurala] tasunak benetan islatzen ote diren sintaxian eta semantikan.
- 4) [+Mugatua] tasunak ere ustez ondo kokatu dituzte egileek hiru paradigma horietan zehar, baina azertu beharrekoa da sailkapen hori zertan datzan semantikan, bai eta morfologian bertan zein zatiri dagoen tasun bakoitza. Alegia, «mugatua» etiketa morfologikoa, gure deskripzio lanetan errotua dagoelarik ere, ondo zedarriztatu beharko da «zehaztutzat» jo izaten den semantika-irakurketa mota batetik. Horrela, bada, mugatu/mugagabe horiek *de facto* morfologiako zehaztapentzat joko ditugu, eta ondo bereiziko ditugu ezkutuago dauden sintaxi- eta semantika-errealitateetatik. Azken hauek, [+zehaztua] semantika-tasunetan islatuta ikusiko ditugu.
- 5) Berdin begiratu beharko dugu «hurbila» deitu izan den tasun horrek nola estutzenago duen sintaxi/morfologia/semantika korapiloa, diakronian zein sinkronian.
- 6) Egungo euskal postposizioak ere ondo deskribatuta daude sintaxi-tesuinguruko eta morfologiako hainbat ezaugarritan oinarrituta, baina azaldu egin beharko dugu zertan urruntzen diren postposizioa buru duten sintagmak, determinatzaile buru duten sintagmetatik. Izan ere, gogora ekartzekoa da ustez determinatzaile-sintagma bat dutela postposizio-sintagmek osagarriaren tokian. Lan honetan, saiatuko gara sinkroniako datuetan bi sintagma motetan azaltzen den izugarritzko irregulartasunaren deskripzioan aurrera egiten.

Bukatzeko, aurretik iradokia dugu ezin azter daitezkeela morfosintaxia-  
ren ikuspegi soiletik determinatzaile-sintagmak edota izen-sintagma soilak.  
Aurrean aipaturiko tasunek oso ondorio desberdinak eta korapilatsuak  
ematen dituzte paradigma morfofonetiko hauetan zehar, alegia, [+muga-  
tua], [+plurala] eta [+hurbila] tasunetan zehar. Hori dela eta, sintaxiak  
eta morfologiak bat egiten dute lan honetan, bi atal nagusi osatu beharra  
agerian uzteko: determinatzaileen sintagma funtzionalarainoko morfofo-  
nologia aztertuko dugu lehenengo atal nagusian (→§1), eta postposizioen  
sintagmetarainokoa bigarren batean (→§2).

## 1. Determinatzaile-sintagmak

Sarreran esana dugu determinatzaile, zenbaki-marka, kasu marka eta postposizioen morfologiako euskal korapiloaz arituko garelara. Bestetik, gure egingo ditugu bai gutxienezko termino batzuk eta bai egitura-harremanak irudikatzen esparru gutxieneko bat, nola edo hala X-barraren gramatikari dagokiona, eta egituren barruan kategoria lexikoak eta funtzionalak elkarrengandik bereizten dituenak.

Badakigu egun hiztegi-kategoriak edo kategoria lexikoak ez ezik, funtzio-kategoriak edo kategoria funtzionalak ere irudikatzen direla dibulgazio mailako idatzietan zein ikerkuntza gorenko mailakoetan. Alegia, eduki lexikorik gabe «hitzen arteko harremanak» azaltzen dituzten osagai funtzional horiek ere bere sintagma propioaren buru bide dira teoria-lanen arabera, eta oro har, buru funtzional horiek sintagma lexiko bat dute bere osagarrian. Hala onartzen ari da hizkuntza guztietan zehar, bai giza burmuinak duen hizkuntza ahalmen abstraktu hori formalatzeko, bai eta besterik gabe hizkuntza guztien datuak era bakar batez bildu eta irudikatzen.

Ikuspegi horretatik, esan daiteke euskal aditz jokatuaren esparruan age-rian utzi dela giza hizkuntza guztiekiko parekatze edo unibertsaltasun hori: aditz jokatuaren zehatz-mehatz identifikatuta daude absolutibo, ergatibo eta datibo kasu markadun izenekiko komunztadura-klitikoak. Areago, hainbat kategoria funtzionalen existentzia onartu da, euskal atzizki horien guztien gorabeheren berri emateko (Laka 1993), eta X-barra gramatika deritzon horren arabera ereduatzeko. Adibide erraza eta ezaguna jartze aldera, *-k* kasu marka izen-esparru batean, zehatz-mehatz uztartzen da adibidez *-t* batekin aditz laguntzailean. Lan batzuetan (Laka 1993), onartu da *-t* hori dena delako sintagma-kategoria baten buru dela, aditz jokatuaren beste zati guztiak bezala. Gainera, formalizazio horretako kategoria funtzional horiek guztiak buruz buruko mugimenduak egiten dituzte azkenean adizki jokatu osoa emateko.

Izenaren esparrura goazela, egun nahiko onartua dago (Abney 1987, Artiagoitia 1998, Artiagoitia 2012) euskararako zein beste hizkuntza batzuetarako determinatzaile-sintagma bat eduki badaukagula eta hori onar-

tuta mintzatuko gara aurrerantzean atal honetan. Esana dugu hala ere lan honek ez duela teoria-ekarpenik egingo, eta determinatzaile-sintagmaren existentzia onartuta, determinatzailearen ageriko agerpenaz baizik ez gara mintzatuko.

Bistan da abiapuntuan euskal tradizioan «mugatzaile» deitu izan den *-a* atzizkia koka dezakegula izenaren flexio-korapiloaren buruan. Horretaz gain, baina, ikusteko dago bestelako «errealitate» funtzional batzuk ere bertan ote dauden ala, bestela esanda, horrelakoek sintagma propioa eratzen duten: zenbaki-markak eta zenbatzaileak, eta kasu markak. Edonola, zorrotz jokatuko dugu terminologian, eta *-a* delako horri (determinatzaile) mugatzailea deituko diogu, eta izenei eransten (ez) zaizkien *hau* bezalakoak, (determinatzaile) erakusleak izango dira gure terminologian. Horretaz guztiaz gain, «hurbila» deitu izan den paradigmaren baitan, ondo zedarritzatu beharko dugu zertan den mugatzaile baten eta erakusle atxiki baten arteko aldea.

Izenean zehar ezkerretik eskuinera mugituko gara, bada, ustez osagarri direnetatik buru direnetara, eta jakina, lexikoa den izenetik eskuinera egon daitezkeen kategoria funtzionaletara.

Zati bakoitza ondo zedarritzatzea dugu helburu, hau da, ohiko islapeneta «zuhaitzen» buruetan kokatzea. Horretarako bibliografian oinarrituta, gure ustez berri diren hainbat ideia emango ditugu, terminologia-zorroztasun handiegirik gabe onartzen diren «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» paradigmaren inguruan.

Edonola, hiru ikuspegitatik jorratu nahi dugu izen-morfologia honen korapiloa: lehenengo eta behin, determinatzaile mugatzaile atxikien eta determinatzaile erakusleen arteko harremana hartuko dugu hizpide (→§1.1). Bigarrenik, pluralean eta zehar kasu markekin batera euskalkiek elkarrekin erakusten dituzten aldeak aztertuko ditugu (→§1.2). Hirugarrenik, *-a* itsatsiekin batera euskalkiek elkarrekin erakusten dituzten aldeak aztertuko ditugu (→§1.3). Laugarrenik, saiatuko gara [+plurala] eta [+zehaztua] edo [+mugatua] morfologian eta semantikan ondo bereizten. Bosgarrenik, *-ø* markaren eta markaren arteko harremanaz arituko gara, atalari bukaera emateko.



### 1.1. Determinatzaile erakusleetatik determinatzaile mugatzaileetarako bilakaera

Ezaguna da euskararen historiako une jakin batean sortu zela *-a* hori, hau da, determinatzaile mugatzailea. Traskek (1997) aditzera eman zigun Akitaniako inskripzioetan ez zela agertzen mugatzailearen aztarnarik ere. Hori dela eta, uste dute determinatzaile hori VIII. eta X. mendeen artean sortu zela. Izan ere, Irigoienek (1978a, 1981) erakutsi zigun erakusleetatik sortu zirela *-a* zein hurbileko *-o* horiek. Ez dugu, beraz, terminologia-eragozpenik ikusten hurrenez hurren «determinatzaile mugatzailea» eta «determinatzaile mugatzaile hurbila» izendatzeko bi atzizki horiek.

Idea horren alde eginez, Azkaratek eta Altunak (2001: 70-77 orr., 38-40) agerian jarri dute euskararen historian zehar mugatzailearik gabe erabili izan direla bai ergatibo edo datibo kasu marka daramatenak, bai instrumentala izeneko postposizioa daramatenak ere. Edonola, egile hauek aditzera eman digute gradu bakoitzeko erakusleetik atzizki bana sortu zela, egun mugatzaile hurbila euskalki guztietan azaltzen ez bada ere:

- (1) hau(r) > -au, -or  
 hori > -ori  
 \*(h)a(r) > -a

Azpitarratu beharrekoa da, ordea, egile hauek bi «artikulu» baizik ez dituztela ikusten pluralean: *-ok* eta *-ak*. Aurrerantzean, pluraleko mugatzaile atxikiez mintzatuko gara kasu hauetan ere.

Bestetik, (1) bilakaera-eredu bakun horretan, fonetika-bilakaeraren berri zehatza ematen da, baina ez, ordea, semantikaren bilakaeraren berri. Manteolak (2012) aurrerapauso bat eman du orain dela ez asko plazaratu duen lanean. Izan ere, gure ustez egokia den metodologia bati eusten dio Manteolak, diakronia erabiltzen baitu bestela ulertezinak izango liratekeen datu sinkronikoak eta diasistematikoak ondo ulertzeko.

Egile hauen arabera, <sup>9</sup>*har* > *-a* aldaketa gertatu ostean sortuko zen *hura*, mendebaldetik kanpo erabiltzen den determinatzaile erakusle atxikigabea.

Bibliografiak ez du gure ustez behar bezainbeste azpimarratu mendebaldean baizik bizirik ez dagoen (h)a(r) horretatik sortuko zela antza -a mugatzailea, egun euskara guztietan bizirik dagoena. Hau ez da paradigma hirukoitzeko zehaztapen txiki bat, zeren eta esan baitezakegu hizkuntzaren maila guztietan determinatzailearen bi aldaera desberdin direla «erakuslea» (determinatzaile atxikigabea) eta «artikulua» (determinatzaile atxikia, euskaraz); hala da batez ere erakusleek (galdu) dituzten balio deiktiko eta anaforikoen ikuspegitik.

Izan ere, Gorozikako datuetan bertan, hiru aldaera-lerro horiek elkarrekin lotuta azaltzen dira, baina oso ondo bereizita beste hizkeretatik:

- (2) a mutil hau / mutil hori / mutil hura (Gorozikako hizkeratik kanpo)
- b hau mutille / hori mutille/ha mutille (Gorozikan behintzat)
- (3) a hau mutilleu / hori mutillori (Gorozikan behintzat)
- b mutilleu / mutillori (Gorozikan behintzat)
- (4) a mutil(l)a (Gorozikako hizkeretatik kanpo)
- b mutille (Gorozikan behintzat)

Horrela, bada, lehenengo eta behin (2a/b) banaketa dialektalaren berri eman behar dugu: Gorozikako hizkerak ez dauka determinatzaile erakusle atxikigabea sintagma-buruaren toki estandarrean kokatzerik. Horren orde, izenaren aurreko determinatzaile atxikigabea erabiltzen du (3a), atzean determinatzaile mugatzaile atxikia daramalarik (-eu, -ori). Egun *de facto* euskalkien artean gertatzen den banaketa delarik, onartu beharrekoa da (2a) eta (2b)koak balio deiktiko-anaforiko berberak dituztela. Hori hala izango da, nahiz eta (2a)koan eta (2b)koan determinatzaile-buru desberdinak azaldu, hau da, nahiz eta (2a)koan determinatzaile erakusle atxikigabea azaldu, eta (2b)koan determinatzaile mugatzailea azaldu: *mutil hau* eta *hau mutille* aldaerek osatzen dute banaketa dialektala, eta beraz, balio berberak dituztela ondorioztatuko dugu teoria mailan behintzat (2a=2b).

Horretaz gain, Gorozikako hizkeran behintzat, izen aurreko erakuslea eta izen atzeko erakuslea batera azaldu daitezke (3a), baina atzean agertzeko-

tan, atxikita baizik ez da azaltzen. Gauzak horrela, balio deiktiko-anaforikoetan ( $2a=2b$ ) berdinketa onartu badugu, badirudi orain ( $2=3$ ) erabateko berdinketa onartu behar dugula. Horrek zeresan handia eman dezake, zeren eta behin eta berriz onartzen ari baikara balio berberak lortzen ari garela, determinatzaile-buru desberdinak egonda ere.

Manterolak (2012) aldiz, «gramatika-aldaketa» bat ikusten du erakusleetatik mugatzaileetarako jauzi horretan, eta esan beharrekoa da antzerako gramatika-aldaketa gertatu zela latinetik hizkuntza erromanikoetara ere: determinatzaile erakusleetatik artikulu «mugatua» deitu izan den horretara (mugatzaile mugatu atxikigabera gaztelaniaren kasuan). Manterolak ezer gutxi dio (*h*)*au* > *-au* aldaketaren funtsaz. Edonola, iradokitzen du gure (*h*)*ar* > *-a* horretan artikulua sortu zela, baina agian artikulu hori ez dela gaztelaniaz sortu zen artikulua bezain zehaztua (lan honetan erabiliko dugun semantika-terminologiari jarraituta). [-Zehaztua] tasuna izan lezakeen artikulu horren hipotesitik abiatuko gara hemen.

Guk geuk uste dugu gramatika-etiketa hutsa gabe, mamitsuagoa den beste zerbait behar dugula erakuslea > artikulua aldaketa zedarriztatzeko. Alegia, determinatzaile izeneko gramatika-kategoriaren barruan gertaturiko aldaketa ondo egiaztatu behar da perpausaren edota testuaren gramatikan. Lehenengo bi mailetako determinatzaileen balio deiktiko eta anaforikoez ari garelarik, ez dago inongo eragozpenik, ez datu enpirikoetan, ez teoria mailan determinatzaile erakusle atxikigabeetatik determinatzaile atxikiatarako (1) semantika-aldaketarik gertatu ez dela onartzeko: lehen zituzten balio deiktiko-anaforikoei eutsiko diete atxikita daudenean ere. Horrek esan nahi du lan honetan behintzat erabat baztertuko dugula «artikulua» delako kontzeptua eta terminoa, bai behintzat euskal gramatikaz ari garenean. Horren orde, determinatzaile atxikiez eta atxikigabeez mintzatuko gara, eta ahal delarik, bien arteko semantika-desberdintasunez aritu gara.

Gainera, esana dugu egungo euskararen egoera diasistematikoa elkarrekiko banaketa dialektala dutela erakusle atxikibagea buru duten sintagmek (2a) eta aurretik determinatzaile erakuslea izanda atzean kokatzen den determinatzaile mugatzaile atxikiak (2b). Horrela, bada, euskalkietan zehar behintzat, determinatzaile mugatzaile atxikiak (izenak aurrean erakusle

atxikigabea duelarik), eta determinatzaile erakusle atxikiak edo atxikigabeak balio anaforiko berberak dituzte.

Hirugarren mailako erakusleari azalezko begirada bat eginda, behean dagoen (5a-b) horietan balio deiktikoa zein anaforikoa gerta daiteke:

- (5) a Gizon hura (anaforikoa edo deiktikoa)
- b (Ha) gizon(a) (anaforikoa edo deiktikoa)
- c gizona (-deiktikoa)

Garaia da beraz balio deiktiko-anaforikoei apur bat astiroago erreparatze-ko. Ñabardurak ñabardura, lehen eta bigarren mailako erakusleek bi balio har ditzakete. Deixian, hiztunarekiko hurbiltasun maila desberdinak adierazten dituzte *hau* eta *hori* erakusleek (5a). Zenbaitetan, ordea, bi erakusle horiek testu mailako balioa hartzen dute, eta perpaus mailatik gora erreferentzia egiten diote aurrean aipatutako zerbaiti edo beranduago aipatutako zerbaiti:

- (6) a Gizon hau/hori/hura
- anaforikoa: aipatua dugun hau/hori/hura
- deiktikoa: hemen/hor/han ikusten duguna

Ikus bitez, ordea, hirugarren mailakoak ematen dituen aukerak:

- (7) a Ha gizona (anaforikoa edo deiktikoa)
- anaforikoa: aipatua dugun hura
- deiktikoa: han urrunean ikusten duguna
- b gizona (-deiktikoa)
- anaforikoa: aipatua dugun hori

Beraz, azpimarratu beharrekoa da euskararen historian «artikulu», «mugatzaile» edo «determinatzaile mugatzaile atxikia» delako horren sorreran galdu egin direla hirugarren mailako erakuslean bide zeuden balio deiktikoak. Alegia, ez ditugu lan honetan sakon aztertuko mugatzailearen anafora/katafora kontuak, baina garbi dago mugatzaile honek «galdua» duela hiztunarekiko distantzia adierazteko ahalmena: *gizonak* ez da distantzia adierazteko erabiltzen, eta *gizoneu* / *gizon hau*, *gizonori* / *gizon hori*, bai.

Gauzak horrela izanik ere, onartu beharrekoa da Gorozikako (7a) formek eutsi diezaioketela deixi lanari, *-a* burua izanda ere aurrean erakuslea daramatelarik:

## (8) a deiktiko-anaforikoak

Hau gizonu, hau gizona, gizonu

hori gizonori, gizonori

ha gizona

## b anaforikoa edo erreferentzial hutsa

gizona

Behin mugatzailea deitura edota kontzeptua gure gramatikan errotuta, gramatika-tradizioan ere izugarri errotua egon da hainbat «deklinabide» ikusteko ohitura, mugatzaileak egiten omen dituen agerpenei begira jarrita. Geroago, ustezko deklinabidea delako kontzeptuaz gain, postposizio atxikiak eta kasu markak deskribatuko ditugu baina edonola, «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» direlako kontzeptuak eta terminoak dira nagusi gurean (Azkarate & Altuna 2001, Azkue 1923-25[1969a: §453], Euskaltzaindia 1985, Goenaga 1980, Labayru 2002: §6, Lafitte 1944: §364, Villasante, 1972: 8).

Aukera hauek guztiak [+mugatua] eta [+plurala] morfologia-tasunen arteko konbinazioei dagozkie (Azkaratek eta Altunak 2001: 48), eta esana dugu horietaz gain [+hurbila] ekarri nahi izan dugula lan honetara. Gainera, aditzean ere biltzen den plural aukeraren berri emango dugu, aurrerantzean mugagabea deitu izan denaren semantika argitu nahirik.

Horrela, bada, *-a*, *-eu* eta *-ori* determinatzaile atxikiak ditugu euskal ize-nean, betiere aditzean irudikatuko den singularraren barruan. Gure ustez, eroso erabil litezke «mugatzailea», «lehen mailako mugatzaile hurbila» eta «bigarren mailako mugatzaile hurbila», determinatzaile sorta hauen hiru aukerak izendatzeko. Hala ere, bide zailago baina argigarriago bati ekingo diogu.

Beti kontu horretaz ari garela, euskararen bilakaerako une batean, erreferentziadun sintagmetatik erreferentziarik gabeko sintagmetara hedatu zen

*-a* mugatzailea. Alegia, argumentu funtzioa betetzen duten izen-sintagmetara sartu zen lehenago, eta predikatu funtzioa betetzen duten sintagmetara hedatu zen beranduago. Izan ere, nahiko ikuspegi estandarra da determinatzailea erreferentziarekin uztartzea eta ondorioz argumentu funtzioa bete ahal izatearekin lotzea (Artiagoitia 2012: §3).

Ez da hutsala hemen gramatika-funtzioen aipua: gehienetan betetzen duten argumentu funtzioaren bidez zedarriztatzen ditugu guk izenak, izakiei erreferentzia egiten dietenak. Bestetik, ezaguna da predikatu funtzioa betetzen duten osagai gehienak ez direla izenak, baina hainbat izenek ere bete dezaketela funtzio hori. Berez kontzeptu sinkroniko bati uztartuta dagoen funtzio sorta hori uste baino estuago lotuta dago mugatzailearen bilakaerari. Izan ere, bibliografiak hurbila ez den mugatzailearen bilakaeraren berri baizik ez du eman.

Eztabaida garrantzitsua da euskal lanetan predikatuetakoa *-a* horren izaera zehazteko ahaleginetan sartuta (Artiagoitia 1998, 2012: §3.3, Eguren 2012, Manterola 2012, Zabala 2003, Odriozola & Altzibar 2013): zenbaki-komunztadura (*-a / -ak*) ala artikulua ote da predikatuetakoa *-a* hori? Izatez, predikatu funtzioa betetzen duten izenak ez dira hain ugariak, baina funtzio hori eskuragarria dutelarik, horrelakoetan ere *-a* mugatzailea hartzen dute, aurretik espero litekeen sintaxi eta semantika bati uko eginez.

Esana dago, ordea, *-a* ez dela euskal izenetan ageri den determinatzaile bakarra. Izan ere, *-a* markatugabea eta *-eu*, *-ori / -o* hurbilak elkarren ondoan aztertuko ditugularik, lan honetan argiro esan behar dugu aldaera hurbilak ez direla predikatuetakora iritsi euskararen bilakaeran:

- (9) a Hizkuntzalariak/hizkuntzalariok arituko gara horretan  
 b Gu hizkuntzalari(ak) gara, ez teknikariak  
 c Gu hizkuntzalari(\*ok) gara, ez teknikariak

Horrela, bada, dena delako *-a* determinatzaile mugatzaile atxikia da lehenago argumentu funtziodunetara eta gero predikatu funtziodunetara iritsi zena. Mugatzaile hurbila, esan bezala, paradigma baten bidez estuki lotuta dago bai *-a* mugatzailearekin, bai eta (beste) erakusleekin, baina izen-sin-

tagmetara baizik ez zen sartu. Hau dela eta, gogoratu beharrekoa da *-a* beti deixigabetzat joko badugu ere, erakusle atxikiak zein atxikigabeak deixidunak zein deixigabeak izan daitezkeela. Diakroniako hausnarketa honek bat egiten du [-hurbila] tasuneko mugatzaileak eta [+hurbila] tasuneko mugatzaileek hartzen dituzten balio deiktiko-anaforikoen arteko sinkronia-desberdintasunekin.

Beraz, gogoan izan beharko dugu batetik *-a* mugatzailea (baina ez *-eu*, *-ori* / *-o* direlakoak) syntaxian determinatzaileek ohikoa ez duten funtzio-esparru batera iritsi zela euskaraz:

- 1) *-a* mugatzailea argumentu funtzioko sintagmetan sortu zen, nonbait erakusle atxikigabea izenari erantsita. Atxikitze horretan, galdu egin zuen bere deixi funtzioa.
- 2) *-a* mugatzailea predikatu funtzioko sintagmetara hedatu zen.
- 3) Pentsa dezakegu [+hurbila] diren *-eu* / *-ori* direlakoak ere erakusleak izenari erantsita sortu zirela.
- 4) *-eu* / *-ori* ez ziren predikatuetara hedatu. Hauek deixi funtzioari eusten diote, betiere anafora/katafora balioak ere har ditzaketelarik.

Jo dezagun, baina, mugatzaile bat agertzearen funtsera: determinatzaile batek ematen duen irakurketa espezifikoa, edota zehaztua (≠mugatua, morfologian). Hala onartu izan da abiapuntuan inguruko hizkuntzetan (Mantrola 2012: §2).

Gure gramatika-tradizioiko paradigma hauek, hartu duten izena hartu dutela, bere horretan onartzeak eragozpen handiak sortzen ditu euskararen joskera beste hizkuntzen joskerarekin erkatzeko unean. Izatez, ulergarria da, gure gramatika-tradizioan kategoria funtzionala bereizi beharrean, «mugatu singularra» bezalako multzo-errealitate morfofonologikoak, eta, areago, «mugatu singularra-ergatiboa» bezalako multzo-errealitate morfofonologikoak onartzea eta dauden daudenean deskribatzea: *-a*, bere horretan, oso gutxitan azaltzen da ustez agertu beharko lukeen bi paradigma mugatuetan (10), eta Traskek (2003) esan bezala *-a* mugatzaile agerikoek ez dute beti ereduazko irakurketa zehaztua ematen (11):

- (10) a Gure gizonen egin dute (mugatu plurala, baina ageriko *-a* mugatzailerik gabea)
- b Etxetik nator (mugatu singularra, baina ageriko *-a* mugatzailerik gabea)
- (11) Gizonen egiten dute hori (mugatu plurala, irakurketa generikoa)

Horrela, badirudi Manterola (2012) zuzen dabilela eta *-a* hori artikulatu bat dela, baina agian ez da erreferentzia zehaztua emateko artikulatu mugatu bat, edo artikulatu mugatu hutsa. Gure terminologia zorrotzari eutsita, bada, morfologian «mugatu» deritzona ez da halabeharrez zehaztua. Gogoratu beharrekoa da determinatzaileak balio anitzak har ditzakeela hizkuntza jakin batean, eta areago hizkuntzetan zehar. Mugatzaile hurbilak, jakina, beste semantika-balio bat du eta areago, beste sintaxi bat.

Lehenik, «mugatu» eta «mugagabe» direlako termino horiek «irakurketa espezifikoa» edo eta «irakurketa zehaztua» eta «irakurketa ez-espezifikoa» edo eta «irakurketa zehaztugabea» iradokiko lizkiokete euskara ezagutzen ez duen edonolako hizkuntzalariri. Saiatuko gara, bada, «mugatu» eta «mugagabea» terminoak errealitate morfologikoei atxikitzen, eta «zehaztua» eta «zehaztugabea» terminoek semantikako irakurketen berri emango dute gurean.

Hala ere, ezaguna da munduko hizkuntzetan zehar artikulurik ezak ez dakarrela halabeharrez irakurketa zehaztugabea, eta euskararen kasuan, gainera, *-a* mugatzaile horrek ez dakarrela ezinbestez irakurketa zehaztua. Horrela, bada, euskararen izen-morfologiaren deskripzioan [<sub>+</sub>mugatu] tasun bikoteari eutsiko badiogu, azpimarratu beharrekoa da sintaxi-testuinguru jakin bateko tasun bikote morfologiko bati eutsiko diogula funtsean, «mugatu» delako deizioak bestelako zehaztapen semantikorik iradoki balezake ere.

Ezin utz daiteke esan gabe hizkuntzen deskripzioan ohikoa dela determinatzailearik gabeko izen-sintagmak aurkitu ahal izatea. Azalezko adibide sorta txiki bat emate aldera, ez dugu inola ere ingelesa eta gaztelaniaren sintaxian eta semantikan sakonduko, baina (12-13)koetan ikus bedi inge-



lesak ondo onartzen duela *international rules of Chemistry* artikulurik gabe (12). Onar dezagun sintagma honek irakurketa zehaztua duela, edo, behintzat, gaztelaniak kasu horretan artikulua zehaztua behar duela (13):

- (12) The linguistic phenomenon of international rules of Chemistry, Mathematics and Physics

DET. linguistiko fenomeno PREP nazioarteko arau PREP Kimika Matematika eta Fisika

‘Kimika, Matematika eta Fisikako arau nazioartekoen fenomeno linguistikoa’

- (13) El fenómeno lingüístico de \*(las) reglas internacionales de Química, Matemática y Física

DET fenomeno linguistiko PREP DET arau nazioarteko PREP kimika matematika eta fisika

‘Kimika, Matematika eta Fisikako arau nazioartekoen fenomeno linguistikoa’

Horren ondoan, gogoratu dezagun gaztelaniak ere badituela irakurketa zehaztuko sintagma artikulugabeak:

- (14) Reglas internacionales que no han sido traducidas

arau nazioarteko CONJ EZ AUX itzuliak

‘Itzuli ez diren nazioarteko arauak’

Euskaraz, aldiz, ez dago determinatzailearik edo zenbatzailearik gabeko izen-sintagmarik:

- (15) a \*Kimika, Matematika eta Fisikako arau nazioartekoen fenomeno linguistiko

b \*Itzuli ez diren nazioarteko arau

Bestetik, paradigma horietan zehar, oso maiz gertatzen da ereduzko irakurketa zehazturik ez egotea mugatzailea izan behar duen gauzatze morfologiko batean, hau da, ustez [+mugatua] tasuneko morfologia-gauzatze batean:

- |        |  |   |                                       |
|--------|--|---|---------------------------------------|
| (16) a | Gizona ez da horrelakoa                        | b | Gure gizona etorri da                 |
|        | +mugatua (morfolo <span>g</span> ian)          |   | +mugatua (morfolo <span>g</span> ian) |
|        | <u>±</u> generikoa (semantika <span>n</span> ) |   | +zehaztua (semantika <span>n</span> ) |
|        | -plurala (morfolo <span>g</span> ian)          |   | -plurala (morfolo <span>g</span> ian) |
|        | <u>±</u> plurala (semantika <span>n</span> )   |   | -plurala (semantika <span>n</span> )  |

Oraingoz ez gara plurala jorratzen ari, baina aurreratu dezagun (16a/b) bereizketa bera gertatzen dela bertan, tartean plural-marka azalduta:

- |        |  |   |                                       |
|--------|--|---|---------------------------------------|
| (17) a | Gizonak ez dira horrelakoak                    | b | Gure gizonak ez dira horrelakoak      |
|        | +mugatua (morfolo <span>g</span> ian)          |   | +mugatua (morfolo <span>g</span> ian) |
|        | <u>±</u> generikoa (semantika <span>n</span> ) |   | +zehaztua (semantika <span>n</span> ) |
|        | +plurala (morfolo <span>g</span> ian)          |   | +plurala (morfolo <span>g</span> ian) |
|        | +plurala (semantika <span>n</span> )           |   | +plurala (semantika <span>n</span> )  |

Ikus bedi, bada, singularrak zein pluralak har dezaketela irakurketa generikoa edota orokorra dei litekeen zerbait. Gogoan izan beharko dugu horrelakoak ezin har daitezkeela (ereduzko) irakurketa zehaztukotzat behintzat, gramatika-tradizioan «mugatuak» izanda ere.

Horretaz gain, bibliografiako lan ugarian aurki daiteke *-a* mugatzailedun sintagmek egitura existentzial zehaztugabea eman dezaketela barne argumentua direnean (Manterola 2012: §3.2). Alegia, goiko (16a) horrek, [+existentziala, -zehaztua] irakurketa har dezake. Gu bat gatoz egile honekin, eta beraz, gehitu beharrekoa da (16a)koak [±generikoa] tasunaz gain, [±existentziala] tasunak har ditzakeela.

Hala ere, [+mugatua] tasun morfologikoa bederen erraz zehaztu dute euskal gramatikalariek:

- |        |                                       |   |                                       |
|--------|---------------------------------------|---|---------------------------------------|
| (18) a | Hiru gizon etorri dira                | b | Hiru gizonak etorri dira              |
|        | -mugatua (morfolo <span>g</span> ian) |   | +mugatua (morfolo <span>g</span> ian) |
|        | -zehaztua (semantika <span>n</span> ) |   | +zehaztua (semantika <span>n</span> ) |

-plurala (morfologian)	+plurala (morfologian)
+plurala (semantikan eta sintaxian)	+plurala (semantikan eta sintaxian)

Zer esanik ez, morfologiako [+mugatua] morfologia-tasunak ondo parekatzen dira [+zehaztua] semantika-tasunekin, tartean (aditzean ageri den) pluralaren esparruan gaudelarik: betiere semantikako plural irakurketa dugularik, irakurketa zehaztugabea edo zehaztua izango dugu morfologian mugatu plurala deitu izan den horretan, baina betiere zehaztugabea mugagabea deitu izan den bestean.

Horrela, bada, gure gramatiketan ondo deskribatuta daude bai morfologikotzat (ez semantikotzat) joko ditugun paradigma mugatu biak eta bai paradigma mugagabea. Gehitu beharrekoa da, edonola, paradigma mugagabeak beti ematen dituela irakurketa zehaztugabeak (Odrizola 2007, 2008, Etxebarria & Etxepare 2012).

Paradigma hurbiletara jotzen dugularik, harreman argiagoak ditugu sintaxi, morfologia eta semantikaren artean: *-eu / -ori* irakurketa zehaztuekin batera azaltzen da beti:

- (19) Gorozikan behintzat  
 (Hau) gizoneu  
 (Hori) gizonori  
 +mugatua (morfologian)  
 +zehaztua (semantikan)

Izan ere, *-eu* atzizkiak bat egiten du ereduazko erakusle atxikigabearekin semantikan. Areago, esana dago Gorozikako euskararen ez dela *gizon hau* segida egiten, beste hauek egiten baitira:

- (20) a hau gizona  
 b hau gizoneu  
 c gizoneu  
 +mugatua (morfologian)  
 +zehaztua (semantikan)

Horrela, bada, morfologia-mugatutasunaren ikuspegitik eta semantika-zehaztasunaren ikuspegitik ere *-a* eta *-eu* horiek determinatzailearen aukera desberdinak bide dira egungo euskararen, baina oso harreman estuetan daude, euskararen baitan, beste zenbait hizkuntzatan bezala, determinatzaile erakusletik determinatzaile mugatura gertatu den bilakaera historikoarekin.

Laburbilduz, *-ø* absolutibo kasu marka dagoenean, *-a* mugatzailea ageri dugu paradigma mugatu bietan, euskararen tokian tokiko hizkera guztietan (euskalkietan, alegia). Azpimarratu beharrekoa da, ordea, mugatutzat jo izan diren gauzatze morfologiko horiek ez dutela beti irakurketa zehaztua ematen, eta beraz, elkarrengandik bereiziko ditugu [+mugatua] tasun morfologikoak eta [+zehaztua] tasun semantikoak.

Garaia da, ordea, beste kategoria funtzionalen aldaeretara bete-betean jotzeko: plurala, batetik, eta agerikoak diren ergatibo eta datibo kasu markak, bestetik.

## 1.2. Plurala eta ageriko kasu markak

Absolutiboa-plurala sorta azalean baizik ez dugu aipatu orain arte, ezer gutxi ekarri digulako *-ø* kasu marka tartean dagoelarik singularra/plurala bereizketak.

Ikus ditzagun, ordea, absolutiboaren sorta argiaren ondoan, ergatibo (1) eta datibo (2) kasu markek edota zehar kasuek eragiten dutena:

- (1) a Gizonak egin du
- b Gizonek egin dute
- c Hainbat gizonek egin dute
- c' Hainbat emakumek egin dute
- (2) a Gizonari gertatu zaio
- b Gizonei gertatu zaie
- c Hainbat gizoni gertatu zaie
- c' Hainbat emakumeri gertatu zaie

Ageriko kasu marka daramaten argumentuen pluralari begira jartzen gara, bada, ezin esan daiteke *-k* marka denik inongo pluralaren adierazle, ez ergatiboa dagoenean, ez eta datiboa dagoenean ere. Horrela, bada, azpimarratzekoa da tartean plurala dagoenean oso desberdin jokatzen dutela absolutibo  $\emptyset$  kasuak, batetik, eta ergatibo/datibo kasuek, bestetik. Absolutiboa/plurala konbinazioan ikusten genuen *-k* plural hori, behintzat, ezin har daiteke hemen hain erraz zenbaki-markatzat.

Aurretik aipaturiko bibliografian zeharka iradoki da *-e* izan daitekeela plural-marka, ageriko kasu marketako bat atzean doanean. Izan ere, paradigma mugagabeak ez du *-e* hori erakusten (2c), edota *-r-* epenetiko argia hartzen du (2c').

Ikus bitez, edonola, Gorozikako hizkerakoak:

- (3) a Gizona etorri da  
 a' Gizonak etorri direz  
 b Gizonak egin dau  
 b' Gizonak egin dabe  
 c Gizonari gertatu jako  
 c' Gizonari gertatu jakie

Ez dago esan beharrik hizkera honek (eta bizkaiera osoak), aurrean aipaturikoen ez bezala, ohiko mugatzaile ageria duela atzean ergatiboa edo datiboa daramalarik ere.

Horrela, bada, Gorozikako hizkerak *-a* determinatzailea du betiere, baina batuak oinarri dituen euskalkietan, *-a* / *-e* txandaketa dugu, mugatu singularrean/pluralean konparazioan.

Bukatzeko, ez dago soberan «mugagabea» deitu izan den paradigma buruan izatea:

- (4) a Hainbet gizon etorri direz  
 b Hainbet gizonak egin dabe  
 c Hainbet gizonari gertatu jakie

Manterolak (2012) argiro esaten du *-a* eta *-e* determinatzaile atxikiak ditugula. Horrela, gogoratu behar dugu Gorozikako euskararen *-a* egiten dela betiere absolutibo kasuko singularrean eta pluralean, baina, horrekin batera, irakurketak zehaztuak zein zehaztugabeak izan daitezkeela. Manterolak, ordea, azpimarratzen du pluralarekin batera *-e* azaltzen dela bizkaierazko hizkeretatik kanpoko ergatiboa eta datibo marken aurrean. Hona Manterolaren adibidea eta egileak ematen dituen irakurketak:

(5) Trenak aurreratu gaituzte

+zehaztua

Une honetan, esan behar dugu lan honen egileok sen desberdina dugula (5) horretan eta Gorozikakoa izango litzatekeen (6)koan:

(6) Trenak aurreratu gaitue

+zehaztua

(5)en inguruko euskara aldaerekin ohitua dagoen egilearentzat, (5)ekoa nekez har daiteke irakurketa zehaztugabekotzat. (6)ko euskararen aldaera ondo ezagutzen duen egilearentzat, (6)koan berdin-berdin har daiteke irakurketa zehaztua zein zehaztugabea.

Semantika-epaiketa argiagoak ematen ditu Manterolak (2012), Artiagotiarekin (1997: 162) bat eginez: (5)ekoan, irakurketa zehaztua baizik ez dago.

Diasistemako datu guztiak bilduta, *-a* determinatzaile atxikiak irakurketa zehaztua edo zehaztugabea eman dezake; *-e* mugatzaile atxikia, aldiz, zehar kasuen aurretik azaltzen da pluralean eta irakurketa zehaztua baizik ez du hartzen, bibliografiaren arabera. Aitortu beharrekoa da azken epaiketa hau ez dela guztiz argia, tartean diasistema hau dugularik.

Horrela, bada, *-a* eta *-e* mugatzaileak daudela onartuko bagenu ere, bizkaierazko hizkeretan mugatzaile bakarra dagoela onartu beharko genuke, bai egungo *de factoko* datuei begira, bai eta semantikako irakurketei begira ere.

[+Plurala +hurbila] tasunetara jotzen dugularik, nahiko sintaxi-esparru interesgarria aurkituko dugu. Gramatika-aldaketaz edo, nolabait esateagatik, gramatika-sorreraz aritu gara orain arte, eta lehenbailehen esan behar

dugu hemen ez garela arituko zehazki determinatzaileen sorrera fisikoaz edota fonikoaz. Hau da, ez ditugu aztertuko ez idatzi aurreko euskararen determinatzaile-sistema, ez eta *-eu* eta *-o* izatera nola iritsi ziren. Berez, zuzenean joko dugu egun eskura ditugun aldaerek eskaintzen dizkiguten irakurketetara.

Gauzak argiago emate aldera, onar dezagun plural hurbila ondo errotua dagoela kultur mailako hizkera estandarrean. Hala egingo dugu euskara batuko aldaera morfologikoak erabili ahal izateko, eta zinez bizkaierazko hizkeretatik haratago doan fenomeno baten berri emateko. Edonola, go-goan izango dugu betiere Bizkaiko egungo hizkerek eskaini diotela batuari esparru hau guztia. Ikus bitez hurrengo aukera hauek:

- (7) a Hauek / horiek hizkuntzalariok trebeak dira  
 b Hauei / horiei hizkuntzalarioi ez zaie bururatu  
 c Hauek / horiek hizkuntzalariok arrazoi dute

Lehenengo eta behin, ez Bizkaiko hizkeretan ez bestelako euskalkietan, [+plurala +hurbila] tasunekin batera ez da absolutibo/ergatibo mugatzaile-bereizketarik egiten: *-o* azaltzen da betiere.

Hizkera estandarrean askoz ere hedatuagoa den beste egitura bat dugu pluralean:

- (8) a Gu hizkuntzalariok  
 b Zuek hizkuntzalariok  
 c \*Haiek hizkuntzalariok

Horrela, bada, [+plurala +hurbila] tasunak ditugularik, esan daiteke euskaraz *-o* mugatzaile bat dugula bakar-bakarrik balio deiktikoak adierazteko. Berez, testuinguru batean hiztunari berari edo hiztunei egiten die erreferentzia, tartean pertsona-izenordeak daudenean.

Alegia, ekarpen txiki bat egin geniezaioke Manterolaren (2012) ikerketar-ildoari, eta esan genezake diasistematikoki zinez hiru mugatzaile ditugula egungo euskararen baitan: *-o*, *-e* eta *-a*. Hauekin batera, ez ditugu ahaztuko, jakina, *-eu* eta *-ori* atxikiak.

*-o-* determinatzaile atxikia mendebaldeko hizkerari dagokie eta balio deiktiko-anaforikoak ditu. Euskara estandarrera hedatu bide da izenordainekin batera, bakar-bakarrik balio deiktikoari eutsita. Azpimarratu beharrekoa da *-o-* eta *-au*, *-eu* / *-ori* esparru berean kokatu beharko lirakeela, dela determinatzaile mugatzaile atxikien artean, dela determinatzaile erakusle atxikien artean.

*-e-* determinatzaile atxikiak irakurketa deiktiko-anaforikoa ematen du, eta beti edo askotan, zehaztua da, zehar kasuen aurretik doa, eta mendebaldeko hizkeretatik eta beste hainbat hizkeretatik kanpo dago.

*-a* determinatzaileak irakurketa zehaztua zein zehaztugabea har dezake, eta zenbait hizkeratan, bera baizik ez dago eskura, singularrean zein pluralen, atzetik absolutiboa zein zehar kasuak daramatzalarik.

### 1.3. *-a* itsatsia

Oso ezaguna da *-a + -a → -a* «notazioa» erabili dela batuak oinarri dituen euskalkietan *-a* bukaera duten izenatarako. Beraz, horrelako bukaera ez dutenen aldean (1a, b, c), hizkera hauetan ez da bereizketa fonikorik egiten mugatzailedun eta mugatzailearik gabeko izenen artean, baldin eta izenaren bukaera berezko *-a* baldin bada (1a', b', c'):

- (1) a Gizona etorri da / Gizon bat etorri da  
 a' Neska etorri da / Neska bat etorri da  
 b Gizonak egin du / Gizon batek egin du  
 b' Neskak egin du / Neska batek egin du  
 c Gizonari gertatu zaio / Gizon bati gertatu zaio  
 c' Neskari gertatu zaio / Neska bati gertatu zaio

Edonola, erdialdeko hizkeretako batzuetan, ahozko eran behintzat, ez dira ezohikoak hainbat izenetan *gauz bat* / *gauza* bezalako txandaketak, azken batean *gizon bat* / *gizona* paradigmari men eginez. Hala ere, nekez egiten da \**nesk bat* bezalakorik eta beraz, pentsatzekoa da *gauz bat* egiten



duenak nolabaiteko kontzientzia duela morfofonetikoa den kontu honen murriztapenez.

Bizkaierazko hizkeretan behintzat oso bestelako esparrua dugu, eta *-a* + *-a* → *-ea*, *-ia*, *-ie*, *-e* eta *-i* ditugu. Hona hemen Gorozikakoak:

- (2) a Neskie etorri da / Neska bat etorri da  
 b Neskiek egin dau / Neska batek egin dau  
 c Neskieri apurtu jako / Neska bateri apurtu jako

Horrela, bada, *-a* bukaeraren eta mugatzailearen arteko elkartzearen ondorio dugu *-ie* hori.

Ikusia dugu, bestetik, *gizon* bezalako izenetan gertatzen dena:

- (3) a (hau) gizona / (hori) gizona / (ha) gizona  
 b (hau) gzoneu / hori gizonori / (ha) gizona

Ikus bedi orain *neska* bezalakoek erakusten dutena:

- (4) a (hau) neskie / (hori) neskie  
 b (hau) neskieu / hori neskiori

Badugu (3a/4a) bereizketa horren berri, baina polikiago ikusi behar dugu (3b/4b) bereizketa. Izan ere, Gorozikan *eu* erakusle atxikia dugu betiere. Horrekin batera,  $-\emptyset + -a > -a$  (3a) eta  $-a + -a > -ie$  (4a) gertatzen direla onartzen badugu, nolatan azaldu ote daiteke *neskieu* horrek (4b) duen *-i* bokala? Lan honen egileetako baten senak dio *neskieu* horretan *neski* + *eu* dagoela, hau da, *neskie* forman *-e* jatorrizko mugatzailetzat hartuta, kendu egiten dela paradigmako beste osagai bat eransteko, hau da, erakusle atxikia eransteko. Are argiagoa bide da kontua bigarren mailako erakuslearen kasuan: *neski* + *ori* > *neskiori*, erakusle atxikiak inongo *-e*-rik ez duelarik.

Horrela, bada, Gorozikako hizkera honetan *neskie* eta *neskieu* dugularik, onartu beharrekoa da *-a* itsatsidunen kasuan, *-e* hori mugatzailetzat hartzen dela, eta kendu egiten dela *-eu* erakuslea atxiki ahal izateko. Ez da lan hau gramatika-aldaketak zeinen sakonak izan daitezkeen aztertzen hasteko to-

kia, baina ikus bedi *neskieu* / *neskiori* aldaerek zinez daramatela barruan euskararen une jakin bateko gramatikaren aldaketa bortitza.

«Ustekabeko» morfologia-interpretazio hauek direla eta, bada beste bat ziur aski are garrantzitsuagoa dena:

- (5) a Neskie erori da
- a' Neskak erori direz
- b Neskiek egin deu
- b' Neskak egin dabe
- c Neskieri gertatu jako
- c' Neskari gertatu jakie

(5) hau dela eta, Labayruk (2002: §6.2.4) dio datiboan *-ei* ere badagoela bizkaierazko hizkera batzuetan, baina beranduagoko aldaera dela hori. Gaminde (2007: §2.5.1.2) Gorozikatik hurbil dabil eta azaltzen digu Muxikan *lagumeri* egiten dela singularrean zein pluralean, intonazioa aldatuta. Edonola, (5a'-b'-c')koek argi erakusten dute bertan ez dela *-a* + *-a* gertatu.

Gainera, atzizkiak *-a* + *-o* > *-o* aldaketa (eta kontsonantea + *-o* > *-o* aldaketa) erakusten duela azpimarratu behar da:

- (6) (honek) gizonok, (honek) neskok

Beste amaiera-bokal batek ere laguntza eman diezaguke. Izan ere, ezaguna da *-e* + *-a* elkarketak bilakaera bide berberari eutsi diola eta hor ditugula aipatutako *-ia*, *-ie*, *-e* eta *-i* aldaerak, baina *-ea* alde batera utzita:

- (7) a Umie etorri da
- b Umiek etorri direz

Horrekin batera, ezaguna da jatorrizko *-i* bokal sabaikariak, *-idze* eragiten duela besteak beste Gorozikan:

- (8) a Mendidxe erori da
- b Mendidzek erori direz

Alegia, Gorozikako hizkeretan *gizon*, *ume* eta *mendi* bezalakoek ez dute singular/plural bereizketa egiten, ez absolutiboa tartean dagoenean, ez eta ergatibo edo datiboaren kasuan ere. Bestela esanda, *-e* azaltzen da kasu guztietan ere. *Neska* bezalakoetan aldiz, hizkera honek singularrean baizik ez du erakusten *-a + -a > -ie* aldaketa (*neskiek egin dau*), eta pluralean *-a* itsatsia ez balego bezala jokutzen du (*neskak egin dabe*). Aldaera hurbilei dagokienez, azpimarratzekoa da bi mailatakoak daudela singularrean, baina bakarra azaltzen dela pluralean.

Balio bezate datu hauek *-a + -a > -ie* bezalako notazioak bere tokian jartzeko: izatez, ez dute behar bezala adierazten euskararen errealitatea, ez sinkronia mailan, ez diakronia mailan. Gehiago izango lirateke euskara estandar batetik abiatuta egindako abstrakzio bat, nagusien hizkuntz jabekuntzarako balio dezakeena, eta hizkuntzaren berri abstraktua emateko balio dezakeena. Hiztunaren hizkuntz kompetentzian gertatzen dena ez bide da tankera honetako aldaketa, eta zer esanik ez, are gutxiagoa arau estandarrekiko urradurak aipagai hartzen ditugun kasuetan.

#### 1.4. [+Plurala], [+ mugatua] morfologian eta [+plurala], [+zehaztua] semantikan

Azpimarratu beharrekoa da ohiko terminologiak [+mugatua] tasunari eransten diola [+plurala] izateko aukera, eta [-mugatua] tasunak, itxuraz, ez duela pluralarekiko sentikortasunik: «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» (ez plurala, ez singularra). Hala ere, terminologia hau ez da oso zuzena eta bati baino gehiagori egokitu dakioken kontzeptu semantikoa da mugagabe morfologiko hori. Azkarateren eta Altunaren (2001: 47) esanetan. Euskaltzaindiak (1985, 1993: §4.1.1) zeharka iradoki du izen-sintagma mugagabeak ere [+plurala] tasunekoak izan daitezkeela. Alegia, berriz azpimarratu behar dugu [-mugatua] morfologia-tasunak bat egin dezakeela bai [-plurala] semantika-tasunarekin (1a), bai [+plurala] semantika-tasunekin ere (1b):

- (1) a Botila bat ardo edan dugu  
[-mugatua] [-zehaztua] [-plurala]

- b Ardo gutxi edan ditugu  
[-mugatua][-zehaztua] [+plurala]

(1b) horren harira, zehaztapen diasistematiko bat gehitu behar dugu:

- (2) a Hainbat gizon erori dira  
b Hainbat gizon erori da

Alegia, (2b) posible da euskara batutik kanpoko hainbat hizkeratan. Edonola, *gizon* izen zenbakarria da, eta *ardo* zenbakarri modura erabiltzen da (1b) adibidean. Azter dezagun polikiago *ardo* edo *ur* bezalako izenen kontua. Aditzarekiko zenbaki-komunztadura ondo deskribatuta dago euskaraz, baina edonola bibliografiak agerian utzi digu (Etxeberria & Etxepare 2012, Odrizola 2007, 2008) honelakoek oro har singularra eskatzen dutela aditzean (3a). Pluralak, erabat aldatzen du irakurketa, zenbakaitz horiek abstraitu eta nolabait zenbakarri bihurtzen baitira (3b-b'):

- (3) a Ur asko edan dut / \*ditut 'ur kantitate handia'  
b Ur asko edan ditut 'ur mota asko'  
b' Ardo gutxi edan ditugu 'ardoz betetako edalontzi gutxi'

Horrela, bada, berriz baieztatu behar dugu mugagabea delako deizioa hartu duen paradigmak [+plurala] tasun semantikoak har ditzakeela. Zer esanik ez, plurala deizioa hartzen duenak [+plurala] tasun semantiko du (eta aditzean ere plurala behar du), baina agerian uzten ari gara paradigma horretako marka *-k* ez ezik, *-e* ere izan daitekeela, kasuan kasuko azterketa sinkroniko batean.

Aurreko azpiataletan esandako guztia laburbilduta, mugagabe deitu izan den aldaera morfologikoak [+plurala] semantika-tasunak hartzen ditu, eta azken batean aditzarekiko singular edo pural-komunztadura erakusten du. Mugatu plurala deitu izan denak, bestetik, [+plurala] eta [+zehaztua] tasunak izan ditzake. Singular mugatua deitu izan denak, bukatzeko, [+zehaztua] eta [-plurala] tasunak izan ditzake.

Gauzak horrela irudika daitezke:

(4)

	Determi- natzailea	Zenbakia	Kasu marka	Morfologia-tasunak
Neska/ gizon	-ø	-ø	-ø/-(e)k/-(e)ri	-mugatua, -plurala, abs/erg/dat
gizon	-a	-ø	-ø/-k/-ari	+ mugatua, -plurala, abs/erg/dat
neska	-ie	-ø	-ø/-k/-ri	+ mugatua, -plurala, abs/erg/dat (Gorozikan)
gizon/ neska	-a	-k	-ø	+ mugatua, + plurala, abs (Gorozikan)
gizon/ neska	-a	-ø	-k/-ari	+ mugatua, + plurala, erg/dat (Gorozikan)
gizon/ neska	-e		-k/-i	+ mugatua, + plurala, abs/erg/dat (batuak oinarri dituen euskalkietan)

Horrela, bada, hauxe da gure euskararen izen-morfologia ikusteko auke-  
retako bat:

- 1) «Mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugabea» morfologiako deizioak dira, hau da, morfologia erreal baten berri ematen dute, bai-  
na ez zehazki terminoetan beraietan susma daitezkeen semantika edo  
sintaxi erreal bat.
- 2) «Mugatu» deitu izan diren morfologia-aldaera bi horietan, semanti-  
kako irakurketa zehaztuak zein zehaztugabeak gertatzen dira euska-  
raz. Horrela, bada, «mugatu» delakoa morfologia-tasuna dugu, eta  
«zehaztua» semantika-tasuna.
- 3) «Mugagabea» deitu izan den hirugarren aldaera horretan, pluralezko  
zein pluralik gabeko semantika-irakurketak sortzen dira.

- 4) *-K* zenbaki-marka ezagunaz gain, defektuzko  $\emptyset$  zenbaki-marka dagoela onartu beharko genuke, eta areago, hala egin beharko genuke [+mugatua] morfologia-tasuna dutenetan ez ezik, [-mugatua] morfologia-tasuna duten batzuetan ere.
- 5) Determinatzaile mugatzailea *-a* dugu euskaraz, baina izenaren morfologia-aldaera jakin hori oso gutxitan gertatzen da egungo fonologia-sisteman.
- 6) Bizkaierazko hizkerak eta, bereziki, Gorozikako hizkerak, *-a* mugatzailea azaltzen du «mugatu singularra» zein «mugatu plurala» izeneko morfologia-aldaeretan.
- 7) Bizkaieratik eta beste hainbat euskalkitatik kanpo, batuak oinarri dituen hizkeretan, zenbaki-marka + mugatzailea batuketak ondorio desberdinak ematen ditu atzean absolutibo kasu marka dagoenean edo ergatibo eta datibo kasu marka dagoenean.
- 8) Absolutiboa ez bezalakoetan, *-e* bat hartu behar da kontuan, mugatzailetzat hartzeko, edota plural-marka + mugatzailea batuketaren ondorioztatzat hartzeko. *-a* / *-e* txandaketa ez da gertatzen ez bizkaierazko hizkeretan, ez beste hainbat hizkeretan, baina oso azpimarratzekoa da *-a* eta *-e* aldaerak dituzten euskalkietan, direlako mugatzaile bi horiek desberdin jokatzen dutela [+zehaztua] semantika-tasunari dagokionez. Izan ere, absolutibo kasu markadunek, irakurketa zehaztua zein zehaztugabea har dezakete pluralean, euskalki guztietan ere *-a* azaltzen delarik. Beste kasu markadunetan, eta hainbat hizkeretan behintzat, irakurketa zehaztua nagusitzen da pluralean, tartean *-e* azaltzen delarik. Horrela, bada, lan honen datuetan oinarrituta, bibliografiak esandakoaren alde egin dezakegu eta esan liteke lehenengo hurbilketa batean *-a* [+zehaztua] // *-a* [-zehaztua], *-e* [+zehaztua] diasistema dugula.

### 1.5. $\emptyset$ marka eta markarik eza

$\emptyset$  marken auzira itzulita, Artiagoitiak (2012) agerian jarri du euskarak dituen hainbat ezaugarri garrantzitsu. Lehenik, ez dira zilegi zenbatzailerik edo determinatzaailerik gabeko izen-sintagmak:

- (1) a Hainbat gizon etorri dira  
 b Gizonak etorri dira  
 c \*Gizon etorri dira

(1)ekoek agerian uzten dute izen-sintagmatik gorako islapen funtzional bat «behar» dugula euskaraz ere, ezinbesteko *gizona(k)* edota *hainbat gizon* horiek azaltzeko.

Bigarrenik, zenbatzaileak determinatzailearekin batera azaldu daitezke, eta gainera, izenaren ezkerrean (2a) zein eskuinera (2b):

- (2) a Hiru gizonak etorri dira  
 b Gizon guztiak etorri dira

Hirugarrenik, ezkerrean azaltzen diren zenbatzaile zehaztugabe batzuek (3a) sintagma itxura daukate bere aldetik (ikusi era berean Goenaga 2012, Odrizola 2007, 2008) eta esan beharrekoa da teoria-esparru honetan badagoela ezkerrean sintagmak non kokatu: ustezko islapen funtzional baten espezifikatzailea. Bestetik, badakigu eskuin aldeko zenbatzaileak (3b) hitz soiltzat har daitezkeela:

- (3) a Hainbat / nahiko / makina bat... gizon etorri dira  
 b Gizon asko etorri dira

Badakigu esparru formal horretan sintagmak honela deskribatu izan direla X-barraren gramatikaren barruan:

- (4) [espezifikatzailea [[osagarria] X burua]<sub>X</sub>]<sub>XS</sub>

Gogoratu beharrekoa da gramatika honetan, sintagma mailakoak direla ezkerrean azaltzen diren espezifikatzaile horiek. Gauzak honela bilduko genituzke, bada, teoria esparru hauetan gehiago sakondu gabe:

- (5) a [[IS Zenb]<sub>ZenbS</sub> D]<sub>DS</sub>  
 b [[[gizon]<sub>IS</sub> guzti<sub>Zenb</sub>]<sub>ZenbS</sub> -ak]<sub>D</sub>]<sub>DS</sub>  
 c [hainbat<sub>espezifikatzailea</sub> [gizon  $\emptyset$ <sub>Zenb</sub>]<sub>Zenb</sub>  $\emptyset$ ]<sub>D</sub>]<sub>DS</sub>

Bide batez, honela azaltzen ditu egileak paradigma hurbilak eta bizkaierazko hizkeretan beraiekin batera gertatzen diren determinatzaile bikoitzak:

$$(6) \quad [\text{hau/hori}_{\text{espezifikatzailea}} [\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{-eu/-ori}_{\text{D}}]_{\text{DS}}$$

(6)koa bat dator estandaragoak diren (7-8)koekin:

$$(7) \quad [ [\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{hau/hori}_{\text{D}} ]_{\text{DS}}$$

$$(8) \quad [ [\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{-eu/-ori}_{\text{D}} ]_{\text{DS}}$$

(7) eta (8) aukerek, euskalkien arabera izanda, banaketa osagarria dute, baina erraz onar daiteke semantika-balio berekoak direla, azken batean biek ala biek erakuslea dutelako buru. Ikus bedi, ordea, Artiagoitiak aipatu ez duen beste hau, bere erara aztertuta:

$$(9) \quad [\text{hau/hori}_{\text{espezifikatzailea}} [\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{-a}_{\text{D}}]_{\text{DS}}$$

(7)koak (9)koarekiko banaketa osagarria dauka euskalkien arabera, eta beraz onartu beharrekoa da balio berberak dituztela diasistematikoki desberdinak diren bi determinatzaileek. Alegia, bi buru desberdinen arteko berdintasuna onartu beharko genuke, betiere balio deiktiko-anaforikoak mantenduta.

Bukatzeko, (6) eta (8) horiek espezifikatzailean dute desberdintasuna euskalki berberaren barruan.

Horrela, bada, euskararen ikuspegi diakronikoak eta diasistematikoak uztartuta, esan daiteke bost determinatzaile atxiki daudela (-eu, -ori, -o, -a eta -e), eta era berean, hiru determinatzaile erakusle beregain (hau, hori, h(ur)a). Bistan da, atxikiak direnen artean, ezin ahaztuzkoak direla erakusle askearen itxura daukatenak. «Mugatzaile» deizioa, bada, ilun suertatzen zaigu orain, ez baitago argi atxiki diren guztiak mugatzaile deitu behar ditugun, ala -o, -a eta -e baizik ez diren deizio hori hartu behar dutenak.

Diasistemaren ikuspegiari eutsita, Gorozikako euskarak eta, oro har, bizkaierazko hizkerak hiru determinatzaile atxiki dauzkate, eta gainera, sintagma berean azal daitezke izenen aurreko erakusle beregainekin batera. Hirugarren mailako erakusleak eta mugatzaileak azalpen berezia behar dute. Izan ere, 1) maila bereko konbinazioak azaltzen dira bizkaieraz -hau gizoneu, hori gizonori, h(a) gizona- balio deitiko-anaforikoei eutsita, eta 2) hirugarren



mailakoa (-a) orokorra da euskaraz eta hiru mailako erakusle-sistematik at ere azaltzen da, gutxienez balio deiktikoa galdua.

Beste ikuspegi batetik, Artiagoitiak Egurenekin (2012) batera estuki lotzen du determinatzailearen «presentzia» euskal izenen irakurketa zehaztua-rekin, eta gainera, -a agertzen duten kasu batzuk ere determinatzaile-rik gabekotzat jotzen dituzte. Horrela, nekez etor daiteke bat maila horretako teoria-hausnarketekin *de facto* euskararen dugun morfologia korapilatsu honen deskripzioa edota lan honetan aurkeztu dugun deskripzioa. Izan ere, gramatika sortzaileak bere flexio-kategorietan eskaintzen duen esparru formula ez zaigu oso baliagarri gertatzen, euskararen gauzatze morfologiko guztiekin uztartu nahi dugunean behintzat. Ikuspegi guztiak uztartze aldera, onar dezakegu betiere determinatzaile bat dagoela, eta mugabea deitu izan den paradigman  $\emptyset$  determinatzailea dagoela. Deskripzioari zorrotz eusten diogularik, ezin onar dezakegu oraingoz inongo determinatzaile hutsik, tartean ageriko -a dagoenean. Horretaz gain, gure deskripzioan esan liteke ageriko plural-markak zenbatzaile-sintagma horien buruan kokatzen direla. Bukatzeko, gramatika sortzailearen aparatua barruan kategoriatu funtzional horien buruz buruko mugimenduaren ondorioztat har litezke egun pluralen estandarra den -e hori edota estandarra ez den -ie bezalakoak.

Atal honi bukaera eman baino lehen, partitiboaren inguruko ohar bat egin behar dugu. Marka hau ondo moldatzen da aipatutako eredura, tartean -r- epentesia badugu:

- (10) a Ez da gizonik erori  
b Ez da emakumerik erori

Determinatzaileek eragiten dituzten irakurketei soil-soilik begiratuta, esan beharrekoa da partitiboak mugatzaileak ez bezalako irakurketa bat eragiten duela (zehaztugabea beti) eta guk geuk ez dugu inongo eragozpenik ikusten atzizki honetan mugatzailea ez bezalako determinatzaile bat ikusteko. Izan ere, determinatzaile mugatzaileak banaketa argia erakusten du «determinatzaile partitiboa» dei litekeen honekin:

- (11) Ez da gizona erori 'ezaguna dugun gizon hori ez da erori baina beste batzuk erori dira'

- (12) Ez da gizonik erori 'gizontzat hartzen diren guztien artean bat bera ere ez da erori'

Izatez, partitiboak eta beste hainbat euskal osagaik «beheranzko irakurketa» bat hartzen dute ezezko zein bestelako testuinguru polarretan (Odrizola & Ondarra 2015): 'ez da gizonik erori' → 'ez da erori ez gizon ezagunik, ez eta ezezagunik ere'.

Partitiboaren auziari bukaera emateko, esan beharrekoa da absolutiboa -∅ kasu markadunei lotzen zaiela *de facto* (Trask 2003), eta horretaz gain, aspaldi esanda dagoela (Laffitte 1944: §150) marka honek ez duela adierazten ez plurala, ez eta singularra ere.

## 2. Postposizioak

Aurreko atalean ikusia dugu euskararen izen-morfologian korapilo handi samarra dagoela, determinatzaile atxikiak, zenbaki-markak eta kasu markak eraginda. Edonola ere, azpimarratu beharra dago horko ikuspegi horretan erabat funtzionaltzat hartzen diren hainbat kategoria jorratu ditugula (determinatzailea eta zenbakia), eta gure ohiko gramatiketan hain argi sailkatu ez diren beste atzizki batzuk ere ikusi ditugula (kasu markak).

Izan ere, esana dugu «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «muga-bea» izena hartu izan duten hiru morfologia-lerro ditugula euskaraz, eta zentzuzkoa da lerro horietan kasu markak kontuan izatea; hala ere, gure tradizioko kasu markez gain, lan honetan hainbat egilerekin bat eginez postposizioak ere gehitu zaizkio kasu markek osatzen duten zerrendari, eta kasuak zein postposizioak batera erakutsi izan dira deskripzio-lanetan.

Atal honen hasieran, esan beharrekoa da hizkuntzaren maila guztietan erabat desberdinak diren bi kategoriatan banatuta dagoela hiru testuinguru horietako atzizki sorta hori: batetik kasu markak, flexioari erabat lotuta doazenak, eta bestetik postposizioak (nahiko) kategoria lexikotzat jo daitezkeenak. Horrekin batera, hasiera-hasieratik esan behar da kasu markek ez dutela «izena» kategoria beste kategoria batera aldatzen, eta aldiz, izenak ez bezalako kategoriek betetzen dituzten gramatika-funtzioak betetzen dituztela postposizioetako bat daramaten morfologia-komplexu hauek.

Iripizde asko plazaratu dira hiru deklinabideko ikuspegi horren alde, hau da, euskara deklinatu egiten delako ideiaaren alde, eta deklinabide-atzizki talde bakarra onartzearen alde. Era berean, irizpide asko daude zentzuzkoagoa dirudien ikuspegi berriagoaren alde. Bataren zein bestearen berri izateko ikus bitez Euskaltzaindia 1993: §8, Larramendi 1729, Schuchardt 1947: §1.2, Zabala eta Odriozola 2004: §3.3.2.1. Hemen, hainbat kontu baizik ez ditugu bilduko bibliografia horretatik.

Lehenik eta behin, oso azpimarratzekoa da deklinabidea delako terminoaren barruan, bi kontzeptu daudela elkarrekin lotuta: hitz deklinatua delako horretan, munduko gramatika-tradizioetan, elkarrengandik bereizi ezinik azaltzen dira hiztegi-sarrera lexiko bat eta flexio-atzizkiak, eta beraz «hitza» eta «flexioa» ditugu multzo bakar batean. Alegia, latina bezalako hizkuntza batean, izenaren flexio-aldaera askotan, ezin bereiz daitezke izen soila eta flexio-atzizkia elkarrengandik, eta izatez, paradigma abstraktu baten argitzen digu hizkuntzalariei bereizketa. Alegia, *amicus* 'lagun' izenean, *amicum* edo *amico* bezalako flexio-aldaerek ez dituzte argi bereizten zein den izen lexikoaren zatia eta zein flexio funtzionalaren zatia. Errazago esanda, izenaren forma jakin batetik abiatuta, ez dago ikerketa-metodologia enpiriko batean atzizkia kendu eta hitz soila lortzerik.

Gainera, *amicus prudens* 'lagun zuhurrak' bezalako sintagmekin batera, *cum amici prudentibus* 'lagun zuhurrekin' bezalakoak hartu beharko lirateke kontuan. Alegia, batetik izenak zein izenondoak hartzen dituzte atzizkiak, betiere zinez deklinatzen bide den sintagma bakarraren barruan. Bestetik, latinaren bigarren kasu horretan, *cum* preposizioa erabiltzen da *amici prudentibus* horren aurrean.

Euskarak aldiz, hemen aztergai hartuko ditugun salbuespenak salbuespen, ondo bereizten ditu *lagun* izena eta izen honek atzean eraman ditzakeen atzizki guztiak. Horrekin batera, badakigu atzizki horiek sintagmaren bukaerako osagaiari baizik ez zaizkiola erantsiko.

Horren harira, egun garden deskribatuta dago absolutibo, ergatibo eta datibo kasu marke aditzarekiko komunztadura dutela eta, esan bezala, izen-flexioarekiko erabateko paralelismoa edota komunztadura deskribatu du Lakak (1993).

Postposizio atxikiek bere aldetik, *zehar* bezalako postposizio beregainek sortutako sintagmen gramatika-funtzio berberak betetzen dituzte (Artiagoitia 2000: 69-72, Odriozola 1999, Odriozola 2004, Zabala & Odriozola 2004). Labur esanda, *mendia(k)* eta *mendiari* «izenen funtzioak» betetzeko erabiltzen dira (argumentu funtzioa betetzen dute oro har), eta *mendian* edo *mendian zehar* gauzatuta, aldiz, oso bestelako funtzioetara jotzen dugu: *mendian* soila, modifikatzaile edo predikatu funtzioa betetzeko erabiltzen da, eta *mendian zehar* egiturak ere modifikatzaile edo predikatu funtzioa betetzen du; azken honetan, *mendian* hori *zehar* postposizio buruaren osagarria da. Beste hitz batzuetan esanda, lehenengo hiru atzizkiek (kasu markek) ez diete izenari bere kategorian eragiten, syntaxian izena itxuratzerakoan. Gainerako atzizki guztiek (postposizioek) larri eragiten diote izenari eta ondorioz lortzen dena ez bide da gramatika eta sintaxi bereko osagai bat.

Edonola, aitortu beharrekoa da izen-izenondoek sintagma bakar batean kasu marka bakarra hartzeak ez duela laguntzen kasuak eta lexikoagoak diren postposizioak elkarrengandik bereizten. Alegia, «errazago» bereiziko genituzke euskararen kasu markak eta postposizioak elkarrengandik, lehenengokoak sintagmaren osagai guztietan errepikatuko balira (latinaren antzera), eta bigarrenekoak bukaeran baizik joango ez balira (latinaren preposizioen kasuan bezala). Hala ere, Traskek (2003), Artiagoitiaren (1997, 1998, 2000, 2002) determinatzaile-sintagmaren hipotesira oraindik iritsi gabe jorratzen ditu kasu markak eta azpimarratzen du kasu marka behin azaltzen dela hizkuntzetan *zehar*, eta oso harrigarria dela hain zuzen ere bizkaierazko hizkeretarako deskribatua dugun *honek mutilonek* horretan, kasu marka errepikatuak ikusten dituelako bertan. Gogora dezagun Artiagoitiak goragoko determinatzaile-sintagma baten espezifikatzailean kokatzen duela ezkerraldeko determinatzailea.

Edonola, badirudi hizkuntzen fenomeno orokor bat dela izatez gramatika-kategoria desberdinetakoak diren kasu marken eta postposizioen arteko muga hori mehea izatea (Eguzkitza & Etxebarria 2004: §2.2.1.2.4).

Atzizki bakar modura azaltze horrekin batera, eta, areago, euskararen preposizio falta horrekin batera, berriz esan beharrekoa da latina bezalako hizkuntza batean osagai guztiak deklinatzen direla, eta, areago, deklinatuta dagoen sintagma hori preposizioekin batera ere azaldu daitekeela (*cum ami-*

*ci prudentibus*). Azken hauetan, jakina, preposizio-sintagmei dagozkien gramatika-funtzioak beteko dira. Bide batez, garbi utzi behar da latinaren deklinabide berezko honek oso bestelako sintaxi-esparruak erakusten dituela. Izan ere, euskal postposizioei dagozkien funtzioak betetzen dituzte *patria* ‘aberritik’ bezalako sintagma postposiziogabeek: kasu honetan, *patria* horrek aditza modifikatuko luke, eta ez luke beteko argumentu funtzioa. Gure us-tez, azken datu hau ere oso argigarria da latinaren deklinabidea gure euskararen atzizki sortatik bereizteko:

- (1) *Aristides expulsus est patria*

Aristides atzerriratu zen aberri-ABS

‘Aristides bere aberritik atzerriratu zuten’

Egungo X-gramatikaren ikuspegitik, Artiagoiak (2000: 70) gogora ekarri digu hainbat egituratan oso nabaria dela postposizio-sintagma izango litza-tekeenaren espezifikatzailearen aukera (*oso*):

- (2) a (\*oso) azala

b (oso) azalean

Alegia, (2a)koa determinatzaile-sintagma bat da, eta (2b) postposizio-sintagma bat. Lehenengoak ez du zenbatzailerik onartzen, eta nabari da postposizio bat behar dela *oso* zenbatzaile orokorra erabili ahal izateko (eta formalizazio horretan, postposizio-sintagmako espezifikatzailean kokatu ahal izateko).

Bukatzeko, esan beharrekoa da euskarak baduela beste ezaugarri bat, kasua/deklinabide-atzizkia/postposizioa bereizketa egitea zaildu egiten duena: postposizio atxikitzat jotzen dugun horien aurrean, ez da ageri inongo kasu arrastorik ere. Ildo horretan, azpimarratu beharrekoa da, ordea, georgiera bezalako hizkuntzek ere postposizio atxiki asko dituztela, baina postposizioen aurrean  $-\emptyset$  ez den kasu marka bat azaltzen dela (Odrizola 2008: 12). Euskarak eta georgierak erakusten dituzten parametroei ikuspegi bakar bat emanda, honakoak esan genitzake:

- 1) Hizkuntza hauek  $-\emptyset$  kasu marka edo ageriko kasu marka hartzen dute.

- 2) Euskarak ez du ageriko kasu markarik inoiz hartzen postposizioekin batera, baina georgierak bai.

Laburbilduta, egungo deskripzio estandarrean, hainbat euskal postposizio atxikitzen zaizkio izen edo determinatzaile-sintagmaren bukaerako osagaia-ri. Postposizio hauek erdilexikoak direlarik, beste eragile bat dakarkiotte determinatzailea-zenbakia-kasua bereizketari.

Izan ere, gramatika-tradizioak hiruko deskripzioari eusten dio betiere, eta berriz aitortu behar zaio gramatika-tradizioari paradigmak ondo bereizten direla, bai semantikan, bai morfologian, bai eta aldaerek kokagune hartzen duten sintaxi-testuinguruetan ere.

Postposizioen esparruan, are latzago bilakatuko zaigu lan honetan kategoria hauen guztien morfofonologia zedarriztatzeko egiten ari garen ahalegina: aurreko atalean ikusi ditugun gorabeherak ez ezik, postposizio guztiek ez dute berdin jokatzeko [+mugatua] eta [+plurala] tasunak irudikatzeko unean. Hori hala da gainera morfologia esparru soilean bertan ere, semantika-irakurketak kontuan hartu gabe.

Izan ere, ezinbestez egin behar dugu lan honetan gramatika-tradizioak euskal postposizioen artean argiro egin ez duen bereizketa bat, eta hainbat azpiataletan bereiziko ditugu euskal postposizio atxikiak, hizkuntzaren morfologiaren deskripzioari ekarpen txiki bat egiteko: ezkerrean *-a* mugatzailea argi erakusten duten postposizioak (→§2.1), ustezko *-a* mugatzailea erakusten duten postposizioak (→§2.2), eta ageriko mugatzailea inoiz izan ez arren betiere paradigma guztiak ondo bereizten dituzten postposizioak (→§2.3). Prolatiboa alde batera utziko dugu gure lan honetan, betiere mugagabea deitu izan den horren barruan azaltzen delarik.

### 2.1. Ezkerrean mugatzailea argi erakusten duten postposizioak

Azter ditzagun lehenago *-a* mugatzailea kasu batzuetan bere horretan agerian dutenak. Haien artean ere, azpiatal batzuk bereizi behar ditugu: soilak (→§2.1.1) eta genitiboaren atzean eransten direnak (→§2.1.2).

2.1.1. *-a mugatzailea + -z instrumentala / Bizkaiko -gaz sozietiboa*

Azkaratek eta Altunak agerian jarri dute XII-XIII. mendeetan *-kin* sozietiboa mugatzailerik gabe egiten zela, eta zer esanik ez hori oso esangarria da egungo izen-flexioa ulertzeko ulean: pentsatzekoa da garai hartan ez zeudela egun ereduak jotzen diren morfologia-paradigmak, baina egungo eredu hauek (1) bizi-bizi dabilta egungo euskara estandarrean behintzat:

- (1) a umeaz  
 b umeez  
 b hainbat umez

Ikus bedi instrumentala alde batera utzita, izen-sintagma erabat estandarra dela. Gorozikako hizkerak ere agerian ditu hiru aukerak *-gaz* postposizio sozietiboaren kasuan:

- (2) a mozoloagaz  
 b mozoloakaz  
 c hainbet mozologaz

Gogoratu beharrekoa da Gorozikako hizkeran singular/plural bereizketak ez diola inongo eraldaketarik eragiten determinatzaile-sintagmari. Hemen, ordea, *-g / -k* txandaketa dugu, nonbait postposizioari (ez flexio-zatiari) lotuta. Geroago aztertuko dugun kontu bati begira, azpimarratzekoa da izenaren eta *-ga* atzizkiaren artean ez dagoela genitiborik.

Determinatzaile-sintagmetan bezala, postposizio-sintagmetan ere mugatua eta mugagabea ederki bereizten dira morfologiaren ikuspegitik, Gorozikako hizketan, *-a + -a* → *-ie* azaltzen delako mugatu singularrean. Esan beharrekoa da *-a* itsatsidunetan bere joskera bitxi horri jarraitzen diotela berriz ere. Alegia, pluralak ez du *-ie*, baina bai singularrak:

- (3) a neskiegaz  
 b neskakaz/neskakin  
 c hainbet neskagaz

Betiere *-kaz* da pluralean azaltzen den itxura.

Laburbilduz, bada, ereduzko determinatzaile-sintagma azaltzen da, bai *-z* instrumentalaren aurretik, bai eta Bizkaiko *-gaz* sozietiboaren aurretik ere. Horrela, bada, egungo euskararen bi postposizioek behintzat ez diote morfofonetika korapilatsu honi eragiten, eta ereduzko determinatzaile-sintagma gardenak hartzen dituzte bere ezkerrera.

### 2.1.2. *-a mugatzailea + genitiboa + sozietiboa / kausatiboa*

Aurrera egin baino lehen, esan beharrekoa da Manterolaren (2012: §2.2) bilakaera-proposamenaren alde egiten dutela atal honetako postposizioek egun erakusten dituzten paradigmek: *gizon* izena + *-aren* erakuslea-postposizioa → *gizonaren* izena-mugatzailea-postposizioa. Bestetik, ezin saihesteko da *-e* hori ikustea pluralean, *-ek*, *-ei* horiekin batera.

Diakroniak diakronia, egungo mugatzaileak bere ageriko itxurari eusten dio betiere, erakusle (beregain) batetik eratorri zelarik. Edonola, badakigu oso ohikoa dela euskaraz izenari bi postposizio eranstea. Izan ere, sozietiboak genitiboa darama aurretik singularrean behintzat:

- (1) a emakumearekin
- b emakumeekin
- c hainbat emakumerekin

Kausatiboak, bestetik, honela jokatzen du:

- (2) a emakumea(ren)gatik
- b emakumeengatik
- c hainbat emakume(ren)gatik

Alegia, absolutiboa ez den kasua daramaten izen-sintagma guztietan bezala jokatzen du *-a* mugatzaileak: ageri-ageriko *-a* dugu singularrean, aurreko atalean mugatzailetzat jo izan dugun *-e* azaltzen da pluralean, eta, epenesia tarteko, inongo markarik ez da azaltzen mugagabeen. Antzerako zerbeit esan daiteke genitiboa/kausatiboa bikoteaz.



Horrela, bada, esan liteke postposizio honek bereizketa egiten duela ageriko kasurik gabeko determinatzaileen eta ageriko kasudun determinatzaileen artean. Alegia, mugatzailea/ergatiboa eta mugatzailea/datiboa bikoteen antzera jokatzeko du mugatzailea/genitiboa bikote honek.

[+Bizidun] tasuna duten izenei, bestetik, *-ga-* artizkia erantzen zaio egungo euskarari. Horrelako postposizio hauek guztiek ere genitiboa darabate aurretik:

- (3) a adiskidea(ren)gana
- b adiskideengana
- c hainbat adiskide(ren)gana

Horrela, bada, hemen berriz dugu ereduazko determinatzaile-sintagma + genitiboa + postposizioa.

Hainbaten ustez (Azkue 1923-25[1969a: §480-483], Irigoien 1978b, Mitxelena 1972a [1985: 305]), *-gan* postposizioa gaztelera zaharreko *cas* delakoaren kidea da. Zehatzago *in casa* delakoaren kidea izango litzateke, eta jatorriz *-n*, *-ra*, *-raino* edo *-rantz* gehituko zitzaizkion ustezko *-ga* izen horri, *-en etxean* (= *-en gan*) edo *in casa* gertatzen denaren antzera.

Honi buruzko bibliografiarik aurkitu ez badugu ere, saihetsezina da aurrekoaren harira *-rengatik* eta *-rentzat* etorkizuneko lanetan berrikustea. Izan ere, kausatiboak *-ren gai* izena + *-tik* osaketaren itxura dauka, eta destinatiboa aldiz genitiboa + prolatiboa batuketaren ondorio izan liteke.

Edonola, laburbil dezagun esanez instrumental izeneko postposizioak erabat estandarrek diren sintagma eratzeko dituela, edo zehatzago, erabat estandarrek diren determinatzaile-sintagma hartzen dituela osagarri. Genitiboaren atzean azaltzen diren beste postposizio hauek ere nahiko estandar jokatzeko dute, betiere postposiziorik gabeko determinatzaile-sintagmen aldean.

## 2.2. Ereduzkoa ez den determinatzaile-sintagma soila + postposizioa

Talde honetan daude gure gramatika-tradizioan leku-denborazkotzat jo izan diren postposizioak, alegia, bizigabe diren izenei lotzen zaizkien le-

ku-denborazko postposizioak. Haien artean, gainera, *-a* mugatzaile zalan-  
tzagarria dutenak aztertu behar ditugu lehenago (→§2.2.1), eta mugatzailea  
delakoaren arrastorik ere ez duten postposizioak bereizi behar ditugu beste-  
tik (→§2.2.2).

### 2.2.1. *-a zalanztzagarria*

Mitxelenaren (1972 [1985: 303]) ustez, argi ikusten da lekua adierazten  
dutenak besteak baino beranduagokoak direla, baina ezin froga daiteke ho-  
rrelakorik, ez baitago 1000. urtea baino arinagoko dokumentaziorik. Esan  
dezagun, edonola, postposizio hauen osagarriaren kokalekuan dauden sin-  
tagmek are flexio-morfologia korapilatsuagoa dutela determinatzaile-sintag-  
ma soilek baino. Izan ere, hemen mugatzailearen bi jatorri ikusiko ditugu:  
pluralekoa, hiru postposizio hauek erakusten dutena (→§2.2.1.1), eta sin-  
gularrekoa ustez bakar-bakarrik inesiboak erakusten duena (→§2.2.1.2).

#### 2.2.1.1. Plurala + inesiboa/elatiboa/adlatiboa

Izan ere, badute postposizio hauek azalezko semantika hori baino sako-  
nagoa den zerbait bere ezkerrean doan determinatzaile-sintagman: *-ta-*  
artzkia azaltzen da postposizioaren aurretik mugagabeetan eta pluraletan  
(1b):

- (1) a zuhaitzean, pagoan / zuhaitzetik, pagotik / zuhaitzera, pagora  
b zuhaitzetan, pago(e)tan / zuhaitzetatik, pago(e)tatik /  
zuhaitzetara, pago(e)tara

Bibliografiaren arabera (Azkarate eta Altuna 2001: 116-117, Schuchardt  
1947: §14), oso aldaketa bortitza gertatuko zen euskal postposizioen mor-  
fosintaxian.

Lehenengo eta behin, ezaguna da leku-izen propio askok berezko atzizki  
dutelara *-eta* hori, multzoa adierazten zuen latineko *-etum* delakotik bide da-  
torrena:

- (2) a (neutroa) *-etum* (sing.) > *-edo* (maskulinoa): pinedo, salcedo....
- b (neutroa) *-eta* (plural) > *-eda* (femeninoa): avellaneda, alameda....

Leku-izen horiek Euskal Herriaren mugako erdal herrietan agertzen dira batez ere. Badakigu euskaraz ere badirela honelakoak:

- (3) *pagoeta* / *pagadi* ‘pagoak dituen tokia’

Bibliografian argi esaten ez bada ere, pentsatzekoa da *-eta* nolabaiteko eratorpen-atzizkia izango zela. Bestela esanda, garai hartan *-eta* atzizkia emankorra izango zen toki-izen eratorriak emateko. Edonola, badakigu egun *-eta* ez dela eratorpen-atzizki emankorra eta *-di*, *-tza* eta *-teria* daudela bere orde.

Gauzak horrela, euskal toponimiara iritsiko ziren *-eta* zatidun horiek (4a), eta hortik gizaki-deituretara (4b) aldatuko ziren:

- (4) a *Pagoeta*: pagoak dituen toki jakin baten izena
- b *Pagoeta*: gizaki edo toki jakin baten deitura

Hala ere, *Pagoeta* edo *pagoeta* bezalako izenen sintaxiaren aldaketa prozesua ez zen hor geldituko. Izan ere, erraz uler daiteke honelako toki-izenak oso maiz erabiltzen direla toki-postposizioekin batera:

- (5) a ...*pagoeta-n* (=pagadian) izan naiz
- b ...*pagoeta-tik* nator
- c ...*pagoeta-ra* joan naiz

Bibliografiaren arabera, *-eta* hori pluraltasun balioa galduz joango zen, eta *-e* soila hartuko zen plural markatzat edo, zehazkiago, mugatzailea + plurala multzotzat. Horrela, determinatzaile, zenbaki eta kasu marken flexio-esparrura iritsiko zen *-e* hori, izen-morfologiaren barruan. Bestetik, *-ta* hondarra, *-n*, *-tik* eta *-ra* postposizioei lotu bide zitzairen plural eta mugagabe deitu izan diren aldaeren barruan. Izan ere, ikusia dugu absolutibotik kanpoko kasu markek plural-markekin batera *pagoek* edo *pagoei* bezalakoak egiten

dituztela. Hau da, *pagoek* eta *pagoei* horien ondora iritsiko ziren *pagoetan*, *pagoetatik* edo *pagoetara* bezalakoak.

Gogoan izan behar dugu bilakaera proposamen honek ez duela inola ere bat egiten Manterolak (2012: §2.2) proposatutako *pago hetan* > *pagoetan* bilakaera bidearekin. Bistan da, edonola, Manterolak ez digula eman muga-gabeen azaltzen den *-t* horren azalpenik.

Hain zuzen ere, postposizioen gune honetan azaltzen da ageri-agerian *-e* hori (mugatu) pluralaren adierazle dela, bai determinatzaile-sintagma soiletan (*pagoek*, *pagoei*), bai eta postposizio-sintagmen osagarriaren kokaguneko determinatzaile-sintagmetan ere (*pagoetan*, *pagoetatik*, *pagoetara*). Zer esanik ez, alde bat dago bien artean, berezko *-k* edo *-i* kasu markak ez direlako inola ere azaltzen postposizio-sintagmetan:

(6)

	det	zenbakia	kasu marka	postposizioa
	pago	<i>-a</i>	$\emptyset$	<i>-</i>
pago	<i>-a</i>	<i>-k</i>	$\emptyset$	<i>-</i>
	pago	<i>-a</i>	<i>-k/-i</i>	<i>-</i>
	pago	<i>-e</i>	<i>-k/-i</i>	<i>-</i>
	pago	<i>-e</i>	$\emptyset$	<i>-tan, -tatik, -tara</i>

Onartu beharrekoa da hala gertatuko zela *de facto* bai pluralean bai muga-gabeen ere:

(7)

pago *-tan, -tatik, -tara*

Alegia, bibliografiak esandakoa eta egun ditugun datuak elkartuta, badirudi *-e* hori «sentitu» egiten dela plural modura, bai determinatzaile-sintagma soiletan, bai eta postposizioen osagarri diren determinatzaile-sintagmetan ere.

Edonola, hipotesi honen barruan pentsatu beharko genuke *-tik* elatiboa eta *-ra* adlatiboa ere sartuta egongo zirela pluralean gertatu zen aldaketa honetan.

## 2.2.1.2. -plurala + inesiboa

Esana dugu pluralean *-e* hori pluraltzat hartuko zela, edo agian mugatzailea + plurala multzotzat, baina beste alde batetik, baliteke garai horretan oraindik finkatu gabe egon izana mugatzailea, eta, betiere bibliografiari jarraiki, honelakoak egongo ziren singularrean behintzat:

- (1) a <sup>o</sup>pagon  
b pagora, pagoraino, pagorantz, pagotik

Behartuta gaude nonbait kontsonante bukaerakoak ere itxuratzen:

- (2) <sup>o</sup>zuhaitz(e)n

Bibliografiak ez du zehazten nola gertatu zen (1-2)ko egoeratik ustezko mugatzailedun singularretarako prozesua, baina ikus bedi egungo sorta hau:

- (3) a zuhaitzean  
b \*zuhaitzea  
c zuhaitza
- (4) a pagoan  
b pagoa

Azkaratek eta Altunak azpimarratua dute (3a-b) kontraste horren ulertzina. Alegia, determinatzaile-sintagmadun postposizio-sintagmek (3a, 4a) determinatzaile-sintagma soilak (10b, 11b) hartu beharko lituzkete osagarri, baina kontsonante bukaerakoen kasuan, (3a/b/c) kontrastea azaldu ezina da, baldin eta onartu nahi badugu (3a)koan ere *-a* mugatzailea dagoela; bestela esanda, (3a) lortzeko, (3b) izan beharko genuke, baina dakigun bezala, (3c) da benetako forma.

Une horretara iritsita, lan honek Gorozikako hizkeraren ekarpena egin nahi du:

- (5) a soloa  
b sololan

- (6) a hormie  
b horman

Alegia, badakigu *-ie* dela *-a* itsatsia + *-a* mugatzailea baturaren ondorioz sortzen den determinatzaile-sintagma hizkera horretan, baina postposizioe-tara jotzen dugularik, esan genezake *horma* izenak ez duela mugatzaile-rik hartzen, *horman* egiten delako, ez *hormien*.

Laburbilduz, bada, *de facto* onartu behar dugu mugatzailea sortu sortu zela baina ezin ziurta dezakegu postposizio-sintagma batzuen osagarri diren determinatzaile-sintagmetan bertan azaltzen den *-a* hori determinatzailea denik: ez da azaltzen dagokion atzizki-hurrenkeraren araberako tokian. Edonola, azaldu beharrekoa da *horma* zein *solo* izenek bere hiru paradigma morfologiko dituztela egun, izen guztiek har dezaketen irakurketa sorta ohi-koarekin batera. Bukatzeko, gogora dezagun, *horman* horren ondoan, *hormetan* eta *hormatan* ditugula hurrenez hurren pluralean eta mugagabeen.

### 2.2.2. *Elatiboak, eta adlatiboak ba ote daukate mugatzaile-rik?*

Ikusia dugu nahiko bilakaera-ibilbide argia dutela *-tik*, *-ra*, *-raino* eta *-rantz* postposizioek, [+plural] tasunari dagokionez; *-e* hori izan liteke mugatzailea pluralean:

- (1) a soloetatik [+plurala], [+mugatua]  
b solotatik [+plurala], [-mugatua]

Singularrean, ordea, inongo mugatzaile-arrastorik ere ez da (sortu) hone-lako postposizioekin batera. Eta hala baieztatu behar dugu tartean Gorozi-kako hizkeran *-a* itsatsidun izenetan oinarrituta:

- (2) a horma (batuak oinarri dituen euskalkietan)  
b hormie (Gorozika)
- (3) a hormatik (euskalki guztietan)  
b \*hormietik

Horrela, bada, esan dezakegu elatiboari ez ziola eragin singularrean *-a* garatu zuen gramatika-prozesuak. Gogora dezagun inesibo, elatibo eta adlatiboan analogia antzeko zerbait gertatu zela, ergatibo eta datibo aldaeretakoko *-e* horretarantz hurbiltze aldera: inesibo, elatibo eta adlatiboan, pluralak bereganatu egiten zuten jatorriz eratorpen-atzizki lexikoa zen *-eta* hori. Horrela, eratorpen-atzizkia lexikoa zen jatorriz, eta [+plurala] tasuna adierazteko flexio-atzizki izatera iritsi zen. [+plurala] bide den mugagabearen paradigmari eusteko ere erabiltzen da *-ta* hori egun.

### Ondorioak

Euskal izenak oso flexio-morfologia korapilatsua dauka, izenari atxikita azaltzen baitira zenbaki-marka, determinatzailea, kasua eta are postposizio gehienak ere. Euskal gramatikaren tradizioak ondo deskribatuak ditu izen bakoitzak eskura dituen hiru paradigma morfologikoak: «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea». Deskripzio hauek *de facto* eginda daude, hau da, egon badaude izenaren hiru flexio-era, eta gainera flexio era horiek ondo uztartuta daude perpausean gertatzen diren beste hainbat morfosintaxi-zehaztapenekin.

Lehenengo eta behin, lan honek gogora ekarri nahi izan du etiketa horiek morfologiakoak edo sintaxizkoak direla, baina ez, ordea, semantikakoak; egia da hiru flexio era horiek ondo errotuak daudela sintaxi-testuinguru banatan, baina «mugatuak» direlako bi horiek (*gizona*, *gizonak*) ez dute beti irakurketa espezifiko hartzen, eta «mugagabea» delako horrek hainbatetan plural-irakurketa hartzen du. Horrela, bada, semantikan aritu garelarik, [+zehaztua] eta [+plurala] semantika-tasunez mintzatu gara, [+mugatua] tasunak morfologian utziz.

Bigarrenik, lan honetan, saiatu gara izenak daramatzan funtzio-kategoria horiek guztiak elkarrengandik zedarriztatzen. Izan ere, lanak xede hartu du zenbakia, determinatzaile atxikia, kasua eta are postposizioak ere ondo identifikatzea morfologiaren korapilo horretan. Izan ere, guk geuk, ahaleginak egin ditugu «mugatua + singularra», «mugatua + plurala» eta «mugagabea» direlako multzootako segmentu bakoitzari funtzio-kategoria bana esleitzeko.

Horretarako, euskararen bilakaerako hainbat datu berrikustatu ditugu, eta horrekin batera, gainbegirada bat bota diogu egungo euskalki-diasistemari. Bereziki erreparatu diogu mendebaldeko hizkeren artean Gorozikako hizkera zaharrari. Izan ere, erdialdeko euskalkietatik eta euskara estandarretik alde batera gelditu diren hizkerek datu osagarriak baina argigarriak ematen dituzte, konparazio-metodologia bat behar bezain zorrotz erabiliz gero.

Hori dela eta, *-a* dugu, jakina, determinatzaile mugatzaile atxiki nagusia, baina azpimarratzekoa da *-a* horrek bere horretan jarraitzen duela hainbat euskalkitan atzean daraman zenbaki eta kasu markak daramatzala ere (*Gizonak egin dau / Gizonak egin dabe*). Horixe gertatzen da Gorozikan, bertan kontsonante-bukaera duten izenetan garden-garden azaltzen delako mugatzailea.

Gorozikako hizkerak gainera, nonbait ageriago uzten ditu mugatzailearen eta bukaerako bokalen arteko tirabira morfofonologikoak (*Neskiek egin dau / Neska batek egin dau*), betiere bestelako euskalkiekiko erkaketaren argitan (*Neskak egin du / Neska batek egin du*). Oso azpimarratzekoa da *-a* itsatsiaren eta mugatzailearen arteko gorabeherak ez bide direla pluralean gertatzen eta Gorozikako hizkerak ez duela eraldaketarik erakusten pluralean (*Neskiek egin dau / Neska batek egin dau / Neskak egin dabe*).

Bestetik, batuak oinarri dituen euskalkietan, badirudi *-e* dugula determinatzaile-sintagma soiletan zein postposizio-sintagmaren osagarri diren zenbait determinatzaile-sintagmatan [+mugatua] [+plurala] tasunak biltzen dituen paradigmen oinarri (*gizonek, gizonen, gizonengan*). Oso azpimarratzekoa da determinatzaile-sintagma soil horiek defektuzko absolutiboa ez den kasu marka bat daramatela. Postposizio-sintagmen singularreko aldaeran, ez da kasu markaren arrastorik azaltzen osagarriaren tokian kokatuta dauden determinatzaile-sintagmetan. Edonola, gogora dezagun egungo diasisteman badirudiela *-a* [+mugatua] eta *-e* [+mugatua] ditugula morfologiaz ari garela (*Gizonak etorri dira / Gizonak egin dabe* eta *Gizonak etorri dira / Gizonen egin dute* hurrenez hurren). Semantikaz ari garela, ordea, *-a* mugatzaileak [+zehaztua] irakurketak ematen ditu Gorozikako kasu marka guztien aurretik. *-e* delakoak, ordea, [+zehaztua] adierazteko joera dauka, atzean ergatibo, datibo edo postposizio bat dagoelarik. Erraz esanda,



[+zehaztua] da Gorozikan *-a* hori, eta batez ere [+zehaztua] da *-e-* beste euskalki horietan. Horrela, bada, *-a* mugatzaile bakarra dugu [+mugatua] eta [+zehaztua], Gorozikan. Batuak oinarri dituen euskalkietan, ordea, *-a* [+mugatua] eta [+zehaztua], eta *-e* [+mugatua] eta [+zehaztua].

Bizkaiko hizkeretako [+hurbila] tasuna dela eta, Gorozikak eutsi egin die bere hiru mailako erakusle atxikiei, eta aukera du erakuslea izen aurrean eta izen atzean errepikatzeke. Tresna-baliabide egokiak eman ditu teoria-hizkuntzalaritzak aurreko determinatzaile erakusle atxikigabea eta atzeko determinatzaile erakusle atxikia daramatzatenak formalki aztertzeke: aurreko erakuslea espezifikatzaile deitu izan den egitura-kokapen batean egongo litzateke, eta atzeko erakuslea, jakina, egitura guztiaren buruan. Pentsatzen dugu galdu aurretik ondo aztertu beharko lirakekeela bi erakusle izateak eta erakusle bakarra izateak zein inplikazio dakarzkion pragmatikari, betiere burua erakuslea denean behintzat.

Azpitarratzekoa da bestetik euskara estandarrean egiten den izena-erakusle atxikigabea segida (*gizon hau*) ez dagoela Gorozikako hizkera zaharrean, eta horren ordez, erakusle atxikigabea-izena-determinatzaile mugatzaile atxikia segida dagoela (*hau gizoneu*), edo bestela izena-determinatzaile atxikia (*gizoneu*). Bi aukera hauek, egungo euskararen diasistema orokorrean bizi dira, bakoitza bere euskalki-aldaeran.

Bai kasu honetan eta bai gainerakoetan ere, sakon aztertzeke daude oraindik euskal erakusle atxikigabeek edo atxikiek hartzen dituzten balio deiktiko-anaforikoak, eta mugatzaile atxikiak hartzen bide duen irakurketa ez-deiktikoa. Izan ere, euskararen historian zein beste hizkuntza batzuen historian gertatu den erakusle/mugatzaile gramatika-aldaketek, fonologiaz gain, balio deiktiko-anaforikoen gorabeheretan ere oinarritu behar izan dute halabeharrez: irizpide hori besterik ez dugu «erakuslea artikulatu bilakatu dela» esateko. Etorkizuneko lan horietan aztertu beharko da nolatan diren parekagarriak, diasistematikoki behintzat, erakuslea-izena-mugatzaile eta izena-erakuslea, baldin eta onartzen badugu egitura bakoitzak funtzio-kategoria desberdina duela buru.

Bukatzeko, [+hurbila] tasuna dela eta, bukaera horretan kokatu behar dugu, eta beraz, singularrean nekez bereiz daiteke izena-erakusle atxikiga-

bea (*gizon hau*) eta izena-erakusle atxikia (*gizoneu*). Horretatik at, erakusle-izena-*a* egiturak (*hau gizona*) ez bide du [+hurbila] tasuna, ez morfologiaren ikuspegitik, ez eta semantikaren ikuspegitik ere.

Oso azpimarratzekoa da «mugatzaileaz» ari garela, *hau gizona* eta *hau gizoneu* horietan pare-parean ditugula *-a* eta *-eu* eta ondo argitu beharko litzatekeela etorkizuneko lanetan *-eu* horri ere (eta pluraleko *-o* horri) «mugatzailea» ala «determinatzailea» deituko diogun.

Beren semantika-tasunak direla eta, jo dezagun *-eu* eta *-o* determinatzaile erakusle atxikiak direla. *-a* edota *-a / -e*, ordea, determinatzaile mugatzaileak direla onartuko dugu, tartean semantika-ezaugarriak [+zehaztua] zein [-zehaztua] izan badaitezke ere.

## Bibliografia

ABNEY, S., 1987, «The English Noun Phrase in its sentential Aspect», PhD dissertation, MIT.

ARTIAGOITIA, X., 1997, «DP predicates in Basque», *University of Washington Working Papers in Linguistics*, Vol. 15, A. Taff (ed.), 161-198. Seattle WA: University of Washington.

———, 1998, «Determinatzailearen sintagmaren hipotesia Euskal Gramatikakan», *Uztaro* 27: 33-61.

———, 2000. *Hatsarreak eta parametroak lantzen*, Euskal Herriko Unibertsitatea & Arabako Foru Aldundia.

———, 2002, «The functional structure of the Basque noun phrase», *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. Lakarra (arg.), 73-90. Bilbo: Supplements of ASJU (XLIV).

———, 2012, «DP Hypothesis in the grammar of Basque», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 21-78. John Benjamins Publishing Company.

AZKARATE, M. & ALTUNA, P., 2001, *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.

AZKUE, R.M., 1923-25, *Morfología Vasca* (I, II, III). (1969). Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

EGUREN, L., 2012, «Predication markers in Basque», *Noun Phrases and Nominalization in Basque. Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 243-266. John Benjamins Publishing Company.

EGUZKITZA, A. & M. ETXEBARRIA, 2004, *Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak*. Euskal Herriko Unibertsitatea & Arabako Foru Aldundia.

ETXEBERRIA, U., 2012, «The way the definite determiner affects quantifiers in Basque (and beyond)», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 79-110. John Benjamins Publishing Company.

ETXEBERRIA, U. & ETXEPARE, R., 2012, «Number agreement in Basque», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 149-178. John Benjamins Publishing Company.

EUSKALTZAINDIA, 1985, *Euskal Gramatika-Lehen Urratsak-I*. Iruñea: Euskaltzaindia, Comunidad Foral de Navarra. Departamento de Educación y Cultura Institución Príncipe de Viana.

———, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GAMINDE, I., 2007, *Bizkaian zehar euskararen ikuspegi orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea. Izaro Bilduma.

GOENAGA, P., 1980, *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.

———, 2012, «An overview of Basque measure phrases», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 111-148. John Benjamins Publishing Company.

IRIGOIEN, A., 1978a, «Erakusleez», *Euskera XXIV* (2. aldia): 713-735.

———, 1978b, «Deklinabideaz», *Euskera XXIV* (2. aldia): 737-759.

———, 1981, «Haur ola çirola», *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker-1. Euskaltzaindia: 365-402.

LABAYRU (arg.). (2002). *Bizkaia Euskararen Jarraibide Liburua. Lehenengo pausuk*. Bilbo: Labayru Ikastegia, BBBK Fundazioa.

LAFITTE, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Elkar. Donostia, 1978.

LAKA, I., 1993, «The structure of inflection: A case study in X<sup>o</sup> syntax», *Generative Studies in Basque Linguistics*. Jose Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.): 21-70. John Benjamins Publishing Company.

LARRAMENDI, M., 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, sarean: [https://books.google.es/books?id=cSBKAAAACAAJ&printsec=frontcover&hl=es&source=gbs\\_ViewAPI&redir\\_esc=y#v=onepage&q&f=false](https://books.google.es/books?id=cSBKAAAACAAJ&printsec=frontcover&hl=es&source=gbs_ViewAPI&redir_esc=y#v=onepage&q&f=false).

MANTEROLA, J., 2012, 'Synchronic ubiquity of the Basque article *-a*: A look from diachrony'. *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 179-206. John Benjamins Publishing Company.

MITXELENA, L., 1972, «Etimología y Transformación», Homenaje a Antonio Tovar. Madrid: Gredos, 305-317 (1985, *Lengua e Historia*, 296-308).

ODRIOZOLA, J.C., 1999, «Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika-kategoriak», *Euskera* 44 (2): 841-863.

———, 2004, «Construcciones con nombres locativo-relacionales en vasco», E. Pérez Gaztelu, I. Zabala & L. Gràcia (arg.). *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Deustuko Unibertsitatea/Universidad de Deusto: 569-602.

———, 2007, «Measure Phrases in Basque», *Studies in Basque and Historical Linguistics in memory of R.L. Trask. Supplements of International Journal of Basque Linguistics and Philology* 40 (1-2). J. Lakarra & J.I. Hualde (arg.): 739-762.

———, 2008, «Quantifying Compounds», *Gramatika Jaietan. Supplements of International Journal of Basque Linguistics and Philology* X. Artiagoitia & J. Lakarra (arg.): 503-518.

ODRIOZOLA, J.C. & ALTZIBAR, X., 2013, «Basque Complex Predicates and Grammar Change», *Fontes Linguae Vasconum* 45 (16): 171-189.

ODRIOZOLA, J.C. & ONDARRA, A., 2015, «Polaritate negatiboko osagaiak baiezko perpausetan», *Uztaro* 92: 67-86.

SCHUCHARDT, H., 1947, *Primitiae linguae vasconum*: versión española con notas y comentarios por A. Yrigaray, Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad, Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

TRASK, R.L., 1997, *The history of Basque*. USA, Canada: Routledge.

———, 2003, «The noun phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names», *A Grammar of Basque*, J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.): 113-170. Berlin: Mouton de Gruyter.

VILLASANTE, L., 1972, *La declinación del vasco literario común*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.

ZABALA, I., 2003, «Nominal predication: copulative sentences and secondary predication», *A Grammar of Basque*, J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.): 426-448. Berlin: Mouton de Gruyter.

ZABALA, I. & J.C. ODRIOZOLA, 2004, «Los complejos posposicionales en vasco», E. Pérez Gaztelu, I. Zabala & L. Gràcia (arg.). *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Deustuko Unibertsitatea/Universidad de Deusto: 281-315.